



OSALAN

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales

OSALAN JARDUEREN MEMORIA Laburpena

2008

Erakunde autonomiaduna
Organismo autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Enplegu eta Gizarte
Gaietako Saila
Departamento de Empleo
y Asuntos Sociales

OSALAN JARDUERA MEMORIA 2008. URTEA



OSALAN

*Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea*

Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Enplegu eta Gizarte
Gaietako Saila

Departamento de Empleo
y Asuntos Sociales

Ale kopurua: 500 ale

© OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Autonomiaduna

Internet: www.osalan.net

Argitaratzailea: OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Dinamita bidea, z/g, 48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)

Fotokonposizioa: HELVETICA PUBLICIDAD S.L.

Inprimaketa: IMPRENTA SACAL

ISBN: 1575-5398

D.L: VI-443/09

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA.....	7
2. OSALAN - EGITURA ORGANIKOA	8
2.1. OSALANEN KONTSEILU NAGUSIKO KIDEAK	8
2.2. OSALANEN ANTOLAMENDUA.....	9
2.3. GIZA BALIABIDEAK	10
2.4. BALIABIDE EKONOMIKOAK	10
3. 2008KO KUDEAKETA PLANAREN HELBURUAK	11
4. 2008KO KUDEAKETA PLANEAN GARATUTAKO JARDUERAK	12
A - PRESTAKUNTZA	12
B - IKUSKAPENA ETA KONTROLA	16
C - KONTZIENTZIAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA	17
D - KUDEAKETA INTEGRATZEA	19
E - ERAKUNDEEN KONPROMISOA	21
F - INFORMAZIOA ETA SISTEMAK	22
G - LAN OSASUNA.....	26
H - BESTE JARDUERA BATZUK	30
5. BESTE INSTITUZIO ETA ERAKUNDEEKIN IZANDAKO HARREMANAK.....	34
5.1. ERAKUNDEAK.....	34
5.2. LANKIDETZA HITZARMENAK	35
6. OSALANEN KONTSEILU NAGUSIAREN BILERAK.....	36
7. BESTE JARDUKETA BATZUK	37
I. ERANSKINA - LAN ISTRIPUAK, SEKTOREKA. 2007 – 2008 URTEEN ARTEKO KONPARAZIO AZTERKETA.	
II. ERANSKINA - 2008KO LANEKO EZBEHAR-TASARI BURUZKO TXOSTENA	
III. ERANSKINA - ERAIKUNTZAKO EZBEHAR TASAREN AURKAKO PLANA. 2008. URTEA.	
IV. ERANSKINA-TUTORETZAPEKO ENPRESEN 2008KO KANPAINA.	
V. ERANSKINA - OSALANEK 2008.12.31N ONETSITAKO BERTAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK.	



1. AURKEZPENA

Aurreko urteetan legez, atsegin handiz aurkezten dizuet, oraingo honetan, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak sustatu eta Gobernu Kontseiluak onartutako 2007-2010eko Laneko Segurtasun eta Osasuneko Plan Estrategikoan ezarritakoarekin bat eginez epealdi bereko Kudeaketa Planerako planifikatutako ekintza ezberdinak zehazten dituen OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen Urteko Memoria. Aipatutako Plan Estrategiko horretan sortzen dira Osalanek bere jardunean jarraitu behar dituen gidalerroak, bere helburua nagusia Euskadiko langileen lan- eta osasun-baldintzak hobetzearen alde egitea izanik.

Osalanen jardunaren oinari diren funtsezko zutabeen inguruan, hau da, lan-arloko Segurtasun, Higiene, Ingurumen eta Osasunaren inguruan, kasu honetan eta ondoren zehazten diren askoren artean, ondorengo ekintzak nabarmentzea komeni da:

- Ikuskaritza Jardunaren Zatikako Plana deritzonaren ondoriozkoak. Honako plan honen helburua ondorengoak kontrolatzea da: Eraikuntza Sektoreko Obrak eta Obren Azpikontratak, Industria, Lehen eta Zerbitzuen Sektoreetako ETEak, eta Industria-mailako Arriskua duten Enpresen Irekiera. Horretarako, Gaitutako Teknikariaren bitartez ikuskaritza-baliabideak indartu behar izan dira, teknikari hori arduratuko baita aipatutako Planaren kontrolaz.
- Prebentzio Zerbitzuek eta Asistentzia Sistema Publikoak, Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin batera Profesionaltzat Sailka litezkeen Gaixotasunak Jakinarazteko Sistema abian jartzearen ingurukoak.
- Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko III. Biltzarra.

Azkenik, neure esker ona erakutsi nahi diet ELA, CCOO, LAB eta UGT sindikatuak, CONFEBASKI eta EUSKADIKO KOOPERATIBEN KONFEDERAZIOARI, eman duten laguntzagatik. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiet OSALANEKO lankide guztiei, buru-belarri aritu baitira Euskadiko langileen eta enpresen lan-baldintzak etengabe hobetze aldera.

Pilar Collantes Ibañez
OSALANEKO ZUZENDARI NAGUSIA



2. OSALAN -EGITURA ORGANIKOA


2.1. OSALANEN KONTSEILU NAGUSIKO KIDEAK.

Lehendakaria:	Carlos Zapatero Berdonces Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordea
Lehendakariordea:	Jesús M.^a Fernández Díaz Osasun sailburuordea
Kideak:	Sonia Pérez Ezquerro Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendaria Gloria Mugika Conde Herritarren Partaidetzarako zuzendaria Katrin Begoña Iturrate Zamarripa Bizkaiko Lan-arloko Lurralde ordezkaria Jaime Muñiz Saitua Bizkaiko Osasun Publikoko zuzendariordea Juan Carlos Ramos Rodríguez Negoiazio Kolektiboko zuzendaria M^a Jesús Iriarte Cillaurren Euskadiko Kooperatiben Federazioa Jon Bilbao Saralegui Enrique González Sal Matías Gómez Conde Confebask – Euskal Enpresaburuen Konfederakuntza Leire Txakartegi Iramategi Janire Domínguez Perez ELA/STV sindikatua Jesús Uzkudun Illarramendi CC.OO. sindikatua Ibon Zubiela Martín LAB sindikatua Esperanza Morales Quicios UGT sindikatua
Idazkaria	OSALANeko Plangintzako Zuzendariordea
Bertaratu da baina botorik gabe	Pilar Collantes Ibáñez OSALANeko Zuzendari Nagusia



2.2. OSALANEN ANTOLAMENDUA.

OSALAN EUSKO JAURLARITZAREN ERAKUNDE AUTONOMIADUNAREN ANTOLAMENDU FUNTZIONALA





2.3. GIZA BALIABIDEAK.

Bere helburuak garatzeko, 187 pertsonen osatzen duten lantaldea dauka OSALANek. Horietako 23 Osasun Zaintzaren arloko teknikariak dira eta 79, gainerako prebentzio-gaietako teknikariak (segurtasuna, higiena eta ergonomia psikosoziologia). Gainerako langileek zeregin administrati-
boak, osagarriak eta zuzendaritzazkoak dituzte.

2.4. BALIABIDE EKONOMIKOAK.

Ondorengoa da, 2008ko ekitaldian bere jarduera garatzeko Osalanek izan duen gastu eta diru-
sarreraren aurrekontua kapituluka banatuta:

GASTUAK

I. Kapitulua	Langileen gastua	9.451.174.-
II. Kapitulua	Funtzionamenduko gastuak	4.570.852.-
III. Kapitulua	Finantza-gastuak	500.-
IV. Kapitulua	Gastu arruntetarako transf. eta diru	3.192.956.-
VI. Kapitulua	Inbertsio errealak	875.760.-
VII. Kapitulua	Kapitaleko Eragiketen Transf. eta Dirulg.	1.125.000.-
VIII. Kapitulua	Finantza-aktiboen gehitzea	70.758.-
GUZTIRA		19.287.000.-

DIRU-SARRERA

III. Kapitulua	Zerbitzuak saldu eta ematea	46.000.-
IV. Kapitulua	Transferentzia arruntak	17.166.982.-
V. Kapitulua	Ondare-sarrerak	2.500.-
VII. Kapitulua	Kapitaleko Eragiketen Transferentziak	1.161.575.-
VIII. Kapitulua	Finantza-aktiboen gutxitzea	909.943.-
GUZTIRA		19.287.000.-



3. 2008KO KUDEAKETA PLANAREN HELBURUAK

Osalanek 2008an zehar garatu duen jarduketa-programa Urteko Kudeaketa Plana deritzonaren ondorio izan da, delako hori, indarrean dagoen bitartean Osalanek gauzatzeko hartu duen konpromisoak barne hartzen dituen proiektu eta jarduera multzoa izani. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 2002.08.30eko alean argitaratutako Erakundearen Egitura eta Funtzionamenduari buruzko uztailaren 30eko 191/202 Dekretuko 17.i, 21.1.b eta 27.1. artikuluetan ezartzen Plan hori prestatzeko betebeharra.

Osalanen 2008ko Kudeaketa Planak aurreko ekitaldian ezarritako premisa berberak izan ditu abiatu, hots:

- Batetik, 2007-2010eko Laneko Segurtasun eta Osasuneko Plan Estrategikoa Euskadin, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren ekimenez egindakoa; honek, langileen zein lan-arloari lotutako edozein pertsonaren bizitza, osotasun fisikoa eta osasuna bermatzeko jarraitu beharreko jarduerak ezartzen ditu.
- Bestetik, Osalanek berak Laneko Segurtasun eta Osasunari buruz egiten dituen hausnarketak eta, bereziki, laneko segurtasun, higiene, ingurumen eta osasunari dagokienez.

Horren guztiaren ondorio, 25 Jarduera Eremutan zatitutako 7 Helburu Estrategikotara zuzendutako Kudeaketa Plana izan da. Jarduera-eremu horiek, gainera, 72 Ekintzatan eta Laguntza Estrukturaleko bestelako Ekintzetan banatuta dago.

Atal honekin amaitzeko adierazi behar da, aipatutako Helburu Estrategiko horien arabera ondoren zehazten diren jarduerak burutu direla:

1. Prestakuntza.
2. Ikusapena eta kontrola.
3. Kontzientziaraztea eta sentsibilizazioa.
4. Kudeaketa integratzea.
5. Erakundearen konpromisoa.
6. Informazioa eta Sistemak.
7. Lan Osasuna.



4. 2008KO KUDEAKETA PLANEAN GARATUTAKO JARDUERAK

A - PRESTAKUNTZA

I. Arriskuen Prebentzioari buruzko Haurrentzako Prestakuntza. Ekintza Planerako Lantaldea

- Lantaldearen jarduerak Programa Pilotu bat prestatzea izan du xede, horren hartzaileak hona ko hauek izanik:

7-8 urteko ikasleak / DBHko 3. eta 4. mailako ikasleak.

ISTASen metodologiari jarraitu zaio eta honako hauek barne hartu dira:

- LEA ARTIBAko materialak.
- GOKAko Parke Tematikoa (GOKAlrekin kontratu bat sinatu da, eta horren bitartez, ikasleek programaren edukiak jasotzeaz gain, parkera joateko aukera izango dute).
- Osalanen "Ikasgela Ibiltaria".

Programa Urrian burutu zen Hezkuntza Sailak aukeratutako Bigarren Hezkuntzako (DBH) 4 Ikastetxetan eta Lehen hezkuntzako 3 Ikastetxetan. Esku hartu zuten irakasleek, aldezturik, erabili beharreko materialei eta ikasgelan aplikatu beharreko lan-jarraibideei buruzko informazioa jaso zuten.

Ondoren egindako inkestetan ikastaroaren balorazio egokia jaso da, honako hauek direla-eta: harrera zein jorratutako kontzeptuak, unitate didaktikoen erakargarritasuna, horiek sortutako interesa eta, azken batez, esperientzia hori beste ikastetxe batzuetara zabaltzeko komenigarritasuna.

Horren ondorioz, 2009. urterako ikastetxe gehiagoetara helduko den programa bat diseinatzeko beharra planteatzen du Osalanek, eta horretarako, ikastaroa ikastetxe guztietan ezartzeko proposamena egin zaio Hezkuntza Sailari.

II. LH eta Unibertsitateko Prestakuntza Programetan LAP txertatzea. Ekintza Planerako bi Lantalde.

- Lanbide Heziketaren inguruko Lantaldeari dagokionez, Koalifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuarekin (KEI) elkarlanean aritu behar zela ondorioztatu zen, berori baita EAEn LHko curriculum-diseinuak eguneratzen dituen. Osalanen eta KEIren arteko lankidetzaren honetan hainbat gai jorratu dira:

- Laneko arriskuen prebentzioko lehen mailarako Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen 39/1997 Errege Dekretuan ezarritako ekintzek behar dituzten erantzukizun profesionala lortzeko gaikuntza, Lanbide Heziketako titulazio ezberdinak ezartzen dituzten Errege Dekretu ezberdinetan Laneko Prestakuntza eta Orientazioko lanbide-moduluak ezarritako prestakuntzaren bitartez. Prestakuntza hori Xedapen Gehigarri batean jasota dago. Osalanek unitate didaktikoen curriculum-diseinua aztertu eta KEI modulu horretan ezartzen saiatuko den hainbat gai gehiago txertatzea proposatu du.
- LPOko irakasleentzako arriskuen prebentzioari buruzko birziklatze-ikastaro baten programa prestatu du. KEIk, berriz, programa hori LHko irakasleen hurrengo prestakuntza-eskaintzan txertatzeko ahaleginak egiten ari da.
- Bere argitalpenak, aldizkariak, etab. eskaini dizkio Osalanek KEIri, LHko ikastetxeetan LPOko Saileran banatzeko.



- Unibertsitatearen inguruko Lantaldeari dagokionez, lortutako ondorengo akordio nagusiak azaltzea dagokio:
 - Egungo Prestakuntza Mapa aldatzeak, kasu askotan, eskola-kredituak murriztea eskatzen du, eta ondorioz, LAPerako gero eta denbora gutxiago gelditzen dela ikusten da, eta gainera, baliteke gehiago murriztea Boloniako hitzarmena ezarri ondoren.
 - Egungo testuinguruan, zaila dirudi Laneko Arriskuen Prebentzioa irakasgai gisa txertatzeko aukera. Hala ere, EHUko Ingeniaritzek edo ikasketa teknikoek, aukera gehiago dute LAP beren ikasketa-programetan txertatzeko.
 - Laneko Arriskuen Prebentzioari lotutako programako irakasgaiak birmoldatuz, Laneko Arriskuen Prebentzioa zeharka txeratzeko proposamena. Eginkizun zaila da, irakasleek oso mugatuta baitute denbora beren eskoletan LAPeko gaia txertatu ahal izateko.
 - LAParen inguruko interesa sustatzeko ikasleei zuzendutako mintzaldiak, hitzaldiak, etab. burutzeko proposamena.

III – 1. Prebentzioko Ordezkarien Prestakuntza berraztertzea – Oinarrizko Mailako Monitorearen Eskuliburua.

- Plan Estrategikoa garatzeko sortutako Lantaldeen artean, Prestakuntza Batzordea izendatu dute “Prebentzioko Ordezkarien Prestakuntzaren Berrikuspena” sustatzeko.
- Osalanek proposatu du Lantaldeak defini dezala prebentzioko langile ordezkariak zer jakin behar duten, dagozkien eskumenen arabera eginkizunak garatu ahal izateko eta, horretan oinarrituta, ikastaroaren edukiak zehatz ditzala.
- Aitzitik, eginkizun hori Osalanek betetzeko eskatu dute Osalanekoak ez diren Prestakuntza Batzordeko kideek, eta ondoren Batzordeari aurkez diezaiola, onartu, aldatu edo errefusa dezan.
- Ondorioz, aipatutako prestakuntzaren inguruan, Monitorearen Eskuliburua prestatzen ari da Osalan, Ikaslearen Eskuliburuarekin batera.
- Eskuliburuaren oinarrizko dokumentuak prestatu dira, hots:
 - Produktu kimikoak manipulatzeko.
 - Garbiketa-sektoreko arriskuak.
 - Istripuak ikertzea.

**III – 2. Prebentzioko Ordezkarien Prestakuntza berraztertzea – Oinarrizko Prestakuntza Mailen Kudeaketa.**

	Araudia		Teknika	
	Ikastaro kop.	Ikasle kop.	Ikastaro kop.	Ikasle kop.
ALZ	10	147	12	223
BLZ	28	464	28	533
GLZ	23	350	25	471
EAE	61	961	65	1227

III – 3. Prebentzioko Ordezkarien Prestakuntza berraztertzea – Lantaldea sortu eta abian jartzea.

- Osalanen Kontseilu Nagusiko Prestakuntzako Ordezkaritza Batzordearekin bat dator Lantaldea, urte osoan zehar bilerarik egin ez delarik.

IV. Eraikuntza Sektoreko Profesionalentzako Prestakuntza Berezia: Eraikuntza Sektorearen Ikasgela Iraunkorra.

	Ikastaro kop.	Ikasle kop.
ALZ	10	108
BLZ	2	29
GLZ	29	408
EAE	41	545

V – 1. Enpresaburu-Zuzendari, Bitarteko Arduradun eta Autonomoen Prestakuntza. Lantaldeak.

Hainbat prestakuntza-ekintza abian jartzeko beharrezko urratsak eman dira:

- Enpresaburu, Zuzendari eta Bitarteko Agintariei zuzendutako e-learning prestakuntza.
 - Laneko arriskuen prebentzioa (30 orduko oinarrizko ikastaroa).
 - Laneko arriskuen prebentzioa (50 orduko oinarrizko ikastaroa).
 - Laneko arriskuen prebentzioa enpresako kudeaketa-sisteman txeratzea.
 - Prebentzioa bitarteko agintari-lanean txeratzea.
 - Arriskuen prebentzioa gidatzean.
 - Langile Autonomoei zuzendutako urrutiko prestakuntza.

Langile autonomoentzako arrisku bereziei buruzko oinarrizko prestakuntza-ikastaroen eskaintza.

Honen helburua da horiek kudeatzen laguntzea, langile autonomoari dagokion sektorearen arabe-ra. Ikastaroak 50 orduko iraupena du eta auto-ikasketako eskuliburuetan oinarrituta dago.



- Mikroenpresentzako prestakuntza.

6 langile baino gutxiagoko enpresetako enpresaburu edo izendatutako langileari zuzendutako oinarrizko mailako ikastaroak. Ikastaroak 30 orduko iraupena du eta LAP inguruko prestakuntza eta aholkularitza barne hartzen ditu.

- Prebentzioari buruzko Foroaren sorrera.

APDk, Osalanekin elkarlanean, aldizkako, hileroko edo bi hileroko, topaketak edo jardunaldiak antolatuko ditu, eta horietan, LAParen inguruko gaurkotasun-gaiak jorratuko dira. Hauen helburua zuzendariak erakartzea da, LAParen inguruan prestatu eta sentikortzearen.

2009ko otsailean abiatuko da Bilboko Euskalduna Jauregian, abenduan Eusko Jaurlaritzak EAEn burutzen dituen LAP Estrategiak aurkeztu baziren ere.

V – 2. Enpresaburu-Zuzendari, Bitarteko Arduradun eta Autonomoen Prestakuntza. LAParen arloan Prestakuntza eta Zabalkundea Sustatzeko Dirulaguntzak.

2008ko uztailaren 27ko EHAAren, dirulaguntza hauek arautzen dituen 2008ko maiatzaren 27ko Ebazpena argitaratu zen.

2008ko azaroaren 20an, Osalaneko Zuzendari Nagusiaren Ebazpena eman zen, eta horren bitartez, 22 erakunderi, guztira, 300.000 €ko dirulaguntzak eman zitzaizkien.

**B – IKUSKAPENA ETA KONTROLA****I. Ikuskari Lanaren Segmentuko Plana Industria eta Eraikuntzan.**

	ALZ	BLZ	GLZ	EAE
Bisitatuak Obrak	749	961	511	2221
Azpiktratat Bisitatuak Obretan	1132	2019	675	3826
Industriako ETEetan egindako ikuskapenak	304	712	544	1560
Lehen Sektore eta Zerbitzuetako ETEetan egindako ikuskapenak	91	459	401	951
Industria Arriskua duten Irekieretan egindako Ikuskapenak (Daudenak/Egindakoak/%)	74 / 74 / %100	52 / 45 / %87	52 / 33 / %64	178 / 152 / %85

Oharra. Era berean, Ekoizpen Ekipamenduak Modernizatzeko Programa barruan, 627 bisita egin dira.

II – 1. Kanpoko Prebentzio Zerbitzuen eta Auditoria Entitateen Administrazioaren Kontrola (Teknika Arloa).

	KPZak		Auditoria Entitateak	
	Eskabideak	Txostenak	Eskabideak	Txostenak
ALZ	3	6	0	0
BLZ	2	4	0	0
GLZ	6	8	0	0
EAE	11	18	0	0

III – 2. Prebentzio Zerbitzuen eta Auditoria Entitateen Administrazioaren Kontrola (Lan Osasuna).

	Txosten kop			Ebazpen kop.			Zigor Espediente kop.		
	BPZ	KPZ	Audit	BPZ	KPZ	Audit	BPZ	KPZ	Audit
ALZ	7	8	0	-	-	-	-	-	-
BLZ	19	61	0	-	-	-	-	-	-
GLZ	33	71	0	-	-	-	-	-	-
KZ	14	0	0	72	140	0	3	26	0
EAE	73	140	0	72	140	0	3	26	0

II – 3. Kanpoko Prebentzio Zerbitzuen eta Auditoria Entitateen Jarduketa Teknikoen Kontrola. Lantaldeak.

-Lagin adierazgarritzat hautatutako enpresa-taldeari igorri beharreko Inkesta egin da. Honako hau 2009. urtean egingo da, lehiaketa publikoko prozedura bidez, eta bere helburua izango da KPZ hitzar-tuek eskaintzen duten zerbitzuaren inguruko gogobetetasun-maila neurtzea.



II – 4. Prebentzio Zerbitzuen Osasun Jarduketaren Kontrola.

a) EAEko Enpresa Kimikoetan eta I. Eranskinekotan LOZaren Egokitasuna Ebaluatzea.

2004 enpresako lagin batean oinarrituta egin da, Laneko Osasun Unitateko langileei bisitatuz eta enpresa eta zerbitzu medikuarentzako galdetegien bitartez. Horren metodologia eta emaitzak Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko III. Biltzarreko zegokion Tailerrean aurkeztu ziren.

b) Laneko Osasun Zaintzaren (LOZ) estaldura, 10 langile edo gehiagoko enpresetan.

	Dagoen enpresa kop.	Aurrez dokumentatutako enpresa kop.	Eskatu zaien arteko gainerako enpresen kop.	Kontzerturik aurkeztu gabe eskatu zaien enpresen kop.
ALZ	2130	1794	336	64
BLZ	6499	5323	1176	387
GLZ	4167	3390	777	156
EAE	12796	10507	2289	607

Kontzerturik aurkeztu gabe eskatzeko zain dauden enpresen zerrenda hurrengo urteko lehen hiru hilekoan igortzen zaio Lan Aginteari, dagozkion ondorioetarako.

II – 5. Osasun Zaintzako Kontzertu Eredua prestatzea.

- Amaituta, argitaratu eta hedatzeko zain.

III. Ikuskapen Baliabideen Koordinazioa.

- Lanpostuak aldatzeko espedientearen ondorioz, LAPeko Teknikarien 12 lanpostu berri sortu dira laneko arriskuen prebentzioaren inguruko prestakuntza- eta kontrol-lanak egin ditzaten.

C – KONTZIENTZIAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA

I. Honako hauek kontzientziaraztea: Prebentzioko Ordezkariek – Langileak – Zuzendariak eta Enpresaburuak – Bitarteko Arduradunak – Izendatutako langileak eta Prebentzio Baliabideak. Ekintza Plan baterako Lantaldea.

Lantaldeak bi bilera egin ditu.

- Lehenengoan, honakoa erabaki zen:

- Langileei zuzendutako Prebentzioko Ordezkariek (PO) inguruko informazio-diptiko edo -triptikoak prestatzea.
- 20-50 langileko enpresetan praktikarik hoberenak (POen jarduerak) bilatzea. CC.OO. eta UGT sindikatuetako ordezkariek informazio hori bilatzeaz arduratuko diren.
- Bigarrenetan, eta ETEetan praktika egokirik aurki ez zirenez eta enpresa handietan aurkitutakoa dokumentuetan jasota ez zegoenez, aurreko bilerako lehen proposamenarekin jarraitu zen. Horretarako, hurrengo bileran aurkeztuko den triptiko baten zirriborroa eginda.

**II. ETE-etako Istripu-tasaren Kostuari buruzko Informazioa.**

- Enpresetan Istripu-arriskuaren Kostuak Kalkulatzeko programa Osalanen Web orrian instalatu ondoren, programa informatiko horren erabileraz informatzen duten 17.931 gutun igorri zaizkie, 6 langile baino gehiago dituzten EAEko ETE guztiei.

III – 1. LAParen inguruko Sentsibilizazio Kanpainak – Ikasgela ibiltaria.

	Bisitatutako Ikastetxeak	Prestatutako Ikasle-kopurua	Asteburuko Sustapen Ibilbideak
Araba	16	1.113	
Bizkaia	33	3.110	
Gipuzkoa	22	1.783	
EAE	71	6.006	101

III – 2. LAParen inguruko Sentsibilizazio Kanpainak – Nekazaritzako Sasoikako Lana.

Patata eta mahatsa biltzen sasoika lan egiten duten langileei zuzendutako Kanpainaren helburuak dira, prebentzioa sustatzeko jarduerak burutzea, enpresei, langileei eta agintari publikoei aholkularitza teknikoa bideratuz, laneko segurtasun eta osasunari buruzko prestakuntza- eta informazio-ekintzak garatzea eta bilketa-kanpainetan sasoika lan egiten duten langileek izan dituzten lan-istripu eta gaixotasunak bildu eta aztertzea. Horretarako, hainbat jarduketa burutu dira, eta horien artean: “Sasoikako Langilearen Arreta Plan Integrala” aurkeztu da eta kooperatibak, upelategiak, enpresak eta aholkularitza-enpresak bisitatu dira LAPeko Legearen betetze-maila egiaztatuzko. Honen inguruan egin diren kontsultei erantzun eta “Laneko Arriskuen Prebentzioa patata-bilketan” eta “Mahats-bilketan laneko arriskuak nola prebenitu” izeneko triptikoetan Udaletan, aholkularitza-enpresetan, enpresetan eta nekazari eta sasoikako langileen artean banatu dira.

Patata biltzeko kanpainak irailaren 19tik azaroaren 11ra bitartean iraun eta, honako ondorio patata gutxiago erein eta sektorean mekanikazio-maila handiago denez, sasoikako langile gutxiago behar direla detektatu zen. Nekazariei egindako bisitetan, LAParen inguruko inplikazioa handiagoa dela antzeman da, bisitatutako nekazariak Legea ezagutu eta aplikatzen dutela egiaztatu baita. UAGA sindikatuak sasoikako 34 langile kontratatu ditu tokian bertan, eurek sortutako ABLE baten bitartez. Ezbehar-tasari dagokionez, kanpainan zehar lan-istripu arin baten berri bakarrik izan dugu.

Mahatsa biltzeko kanpainak urriaren 4tik 28ra iraun zuen, eta honetan, upelategiek zein nekazariak LAParen Legea ondotxo ezagutu eta aplikatzen dutela egiaztatu zen. UAGaren ABLEren bitartez sasoikako 451 langile kontratatu dira 135 nekazarirentzat lan egiteko. Datuak aurreko urtekoen oso antzekoak dira. Eta ezbehar-tasari dagokionez, sasoikako 80 langile artatu direla jakin da, eta horietatik, 10ek laneko baja hartu behar izan zuten, kasu guztietan pronostikoa arina izan bazen ere.



D – KUDEAKETA INTEGRATZEA

I. Prebentzioa Integratzeko Praktika Egokien Hedapena. Ekintza Plan baterako Lantaldea sortzea.

- Kanpoko Prebentzio Zerbitzuek (KPZ) hasiera batez erakutsitako jarrera ona ikusita, horiei (eta bestelako Prebentzio Zerbitzuei: Bertakoak, Enpresen artekoak, etab.) prebentzioko praktika hobeak identifikatu eta jakinarazten laguntzen jarraitu behar da. Osalanek diseinatutako tresnak Prebentzio Zerbitzuengandik jasotako iradokizunak aintzat hartuko ditu.
- Proposatuta da, halaber, Osalanen Web orrian Praktika Egokiak biltzeko plataforma izan daitekeen Foro bat sortzeko ideia; horrela, gainera, izenik gabeko praktikatzat jaso ahal izango dira.
- Tresna sustatzeko lanari ekin zaio, Kanpoko Prebentzio Zerbitzuen artean hedatuz. Asmoa, aurrerantzean horrela jarraitzea litzateke.

II. Izendatutako Langileen eta Enpresa arteko Prebentzio Zerbitzuetako Langileen Sustapena Ekintza Plan baterako Lantaldea sortzea.

- Lantalde hau aurreko atalekoarekin bateratu da.

III. Trakzioa Prebentzioa ETEetan Integratzeko Tresna gisa. Ekintza Plan baterako Lantaldea sortzea.

- Ezarri da LAP, enpresen ezinbesteko baldintza, ezin dela bere garaian kalitatea ezartzeko prozesuan gertatu zenarekin estrapolatu. Kalitatearen “boomean”, bezeroak estandar batzuk eskatzen zituen produktuaren ekoizpen-prozesuan, baina hori ez da LAParekin gertatzen. Gizartea kontzientiarazi beharko litzateke kalitate-prozesuaren eta LAP txertatzearen arteko paralelotasun honetara heltzeko, enpresek laneko segurtasun- eta osasun-neurri jakin batzuen arabera ekoitz dezaten exijitu ahal izateko.
- Hausnartu da, halaber, Lantaldearen sortu zeneko helburuari buruz. Zentzu honetan, zaila dirudi trakzioa kudeaketa-tresna gisa Enpresa Jardueren Koordinazioari buruzko Legea betetze hutsetik bereiztea. Hortaz, Taldeak bere buruari galdetzen dio traktorearen irudia definitzen ari den, indarrean dagoen legeria betetzeko ala ez.
- Arrakastarako, honako ezaugarri eta faktore hauek ondorioztatu dira:
 - Lantoki berean enpresen parte-hartzea garrantzitsua eta jarraitua den sektoreetatik hasi behar da.
 - Beharrezkoa da inplikazio publiko garrantzitsu bat.
 - Beharrezkoa da, orobat, Bitarteko Erakundearen zein sindikatuen parte-hartzea.
 - Enpresek beharrezkoak diren inbertsioei (sarbide-sistema, etab.) aurre egiteko gaitasuna izatea behar da prozesuan.
 - Azkenik, OHSAS trakzioa gauzatzeko tresna baliagarria izan daitekeela.
- Tresnaren inguruan lan egin da, Enpresak Ebaluatu eta jarduera eta tamaina berekoekin litekeen alderaketa egiteko. 2009. urtean zehar, tresna frogatu eta prest jarriko da.



IV – 1. Sariak eta Dirulaguntzak. LAPeko Saria.

Dagokion Lantaldeak dagokion deialdiaren oinarriak finkatu ondoren, Saria deitzen zuen 2008ko uztailaren 22ko Ebazpena argitara eman zen 2008ko abuztuaren 19ko EHAA.

Sariak, zuzkidura ekonomikorik gabekoak, segurtasun- eta osasun-arloko jarduera garrantzitsu bat garatzeagatik nabarmendu diren enpresa edo erakundeak aintzatestea du xede.

2008ko azaroaren 20an hautagaitzak aurkezteko epea itxi, eta eskabideak aztertzen ari dira erabakia eman ahal izateko.

IV – 2. Sariak eta Dirulaguntzak. Laneko Arriskuen Kudeaketa Sistemak Ezartzeko Dirulaguntzak.

2008ko ekainaren 19ko EHAA dirulaguntza horiek arautzen dituen 2008ko maiatzaren 27ko Ebazpena argitaratu zen.

2008ko abenduaren 19an, berriz, deialdia ebazten zuen Osalaneko Zuzendari Nagusiaren Ebazpena eman zen, eta horren bitartez, 68 erakunderi guztira 624.727,04 €ko dirulaguntzak ematen zitzaizkien.



E - ERAKUNDEEN KONPROMISOA

I. LAPeko Goi-mailako Teknikariaren Prestakuntza Ezartzearen alde egitea. LAPeko Goi-mailako Teknikariaren Curriculum Diseinatzeko Lantalde.

- EHUko Gobernu Kontseiluak Laneko Segurtasun eta Osasuneko Unibertsitate Masterra onetsi dute eta Gizarte Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzak aztertzeko zain dago, irakaskuntzak baimentzeko izapideak egin ahal izateko eta, aldi berean, ANECAk ere onartu beharko du, agentzia horrek aldeaz aurretik egiazta dezan, unibertsitate-irakaskuntzen antolamendua ezartzen duen urriaren 29ko 1393/2007 EDak ezarritakoari jarraituz.
- Beraz, Lantaldearen lana sorreran izan zuen helburua lortu denean amaitu da.
- Masterrean 14 sailek eta 50 irakaslek (horietatik 26 doktore izanik) esku hartuko dute eta 30 ikasle matrikulatu ahal izango dira.
- Guztira, eskola zuzeneko 630 ordu izango dira (63 kreditu). Ordutegiaren %62 EHUko irakasleek emango dute eta gainerakoa EHUkoak ez diren irakasleek.

II. LAPa Herri Administrazioetan. Berezko Ikuskatzailatza.

Euskadiko Autonomia Estatutuan eta OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundean ezarritakoaren babespean, ondorengo Dekretu hauek eman dira:

- 17/2008 Dekretua, urtarrilaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Ikuskaritzaren Erregelamendua onartzeko dena.
- 18/2008 Dekretua, urtarrilaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatiben eremuan lan-arriskuen prebentzio-arloko arau-hausteak egiteagatik zehapenak ezartzeko prozeduraren Erregelamendua onartzen duena.
- 19/2008 Dekretua, urtarrilaren 29koa, meategi, harrobi eta tunelen eremuan lan-arriskuen prebentzio-arloko arauak hausteagatik zehapenak ezartzeko prozeduraren Erregelamendua onartzen duena.
- 20/2008 Dekretua, urtarrilaren 29koa, Euskal Administrazio Publikoen eremuan lan-arriskuen prebentzio-arloko arauak ez betetzeagatik neurri zuzentzaileak ezartzeko prozeduraren Erregelamendua onartzen duena.

Horren guztiaren ondorioz, esparru horietarako OSALANen Berezko Ikuskatzailatza arloa abian jarri da, eta honetan Arduradun 1 eta 4 Teknikari arituko dira.

III. Herri Lan Handiak. Aholkularitza eta Ikuskaritzako Lantaldea.

- Euskal Y eta Super Sur delakoen Hitzarmenak onartu eta sinatu dira.
- Abian dira, halaber, bi obra handi hauen jarraipen-batzordeak:
 - Euskal Y: Bost bisita egin eta dagozkien aktak idatzi dira.
 - Super Sur: Astero bisitatu eta bilerak egiten dira.



F – INFORMAZIOA ETA SISTEMAK

I – 1. Behatokia. Abian jartzea.

Behatokia finkatu ahal izateko, Osalanen Web berria funtzionatzen hasi beharko da aurrez. Biak diseinatuta badaude ere, Web berriaren ezarpena atzeratzen ari da eta horrek Behatokiaren abiaraztea galarazten du.

Egoera honen aurrean, Behatokiaren edukiak Web-a ez den beste eremu batean (honakoa, beraz, erabiltzerik ez dagoela) sartzea erabaki da, Web berria erabili ahal denean, lehen momentutik Behatokia martxan eta erabiltzeko moduan egon dadin.

I – 2. Behatokia. Laneko Ezbehar Tasaren Informazio Sistema Orokorra. Lantaldea.

- Gertakarien inguruko informazio-iturriak balioztatzeko zailtasunagatik eta heriotza ondorioztatu zuten istripuak edo oso istripu larriak zirenak baina ezin zirenez jaso, EUSTATi estatistika ofizial berria (gertatutako zein erregistratutako istripuak bilduko zituen) egiteko proposamena baztertu ondoren, estatistika ofiziala beste informazio batekin osatzea planteatu zen. Informazio hori Gertatutako Istripu Hilgarriak baino ez lituzke hartuko eta bere helburua agente interesatu guztiek datu berberak izatea eta istripua gertakari gisa eta, ahalko balitz, horren erregistroa eta kokapen geografikoa ezagutzea izango litzateke. Informazio hori posta elektroniko bidea banatu da, eta 10 egunero eguneratzen da urriaren amaiera aldetik.
- Hurrengo ekitaldian aztertuko ditu Lantaldeak Osalanek Lan Osasunaren Adierazleen inguruan aurkeztutako garapena.
- Izan diren bilerak: 3.

I – 3. Behatokia. Laneko Ezbehar-tasaren Aldizkako Azterketak.

- 2007. urtekoa eta 2008ko lehen hiru hilekoena egin da.

II – 1 - a. LAPari buruzko ikerketa. Lanaldian gertatutako Istripu Traumatikoen Banakako Azterketa.

	Ikertutakoak		
	Arin	Larri	Hilg.
ALZ	74	44	9
BLZ	56	104	27
GLZ	38	73	7
EAE	168	221	43



II – 1 - b. LAPari buruzko ikerketa. Lanaldian gertatutako Istripu Ez Traumatikoen Banakako Azterketa.

	Nº	Inv
CTA	5	5
CTB	11	9
CTG	7	7
CAE	23	21

II – 2. LAPari buruzko ikerketa. Dirulaguntzak.

2008ko ekainaren 19ko EHAA, dirulaguntza horiek arautzen dituen 2008ko maiatzaren 27ko Ebazpena argitaratu zen.

2008ko azaroaren 17an, berriz, deialdia ebazten zuen Osalaneko Zuzendari Nagusiaren Ebazpena eman zen, eta horren bitartez, 9 erakunderi guztira 288.263,25 €ko dirulaguntzak ematen zitzaizkien.

II – 3. LAPari buruzko ikerketa. Bekak.

2008ko irailaren 15eko EHAA, 5 Bekaren deialdia arautzeko 2008ko irailaren 10eko Ebazpena argitaratu zen.

2008ko abenduaren 5ean, berriz, horiek ematea ebazten zuen Osalaneko Zuzendari Nagusiaren Ebazpena eman zen.

Honako hauek izan dira beka jaso duten proiektuak:

1. Segurtasun pribatuko jagolearen arrisku psikosozialak. EAEko egoera eta hartu beharreko prebentzio-neurriak.
2. Laneko estresa duen langilearen kasuari aurre egitera zuzendutako enpresa eta langilearentzako detekzio- eta jarduera-protokoloa sortzea.
3. Laneko arriskuen prebentzioaren egoera Bizkaiko lan-zentro berezietan.
4. Enpresetako Goi Zuzendaritzak eta Bitarteko Agintariak Laneko Arriskuen Prebentzioko berezko politikan eta Prestakuntza Planean esku hartzeak, beren erakundeetako langileen arazo psikosozialak murrizteko egiazki duen garrantzia.
5. Inplikazioa, prestakuntza eta egiaztapena. Segurtasuna areagotzeko ETEek duten lehen mailako konpromisoak.

II – 4 – a. LAPari buruzko ikerketa. Istripu-tasa Errepideak Konpontzeko Lanetan.

- Egindako Protokoloen araberrako 4 dibulgazio-bideo egin dira.
- Protokolo berriak egitea planteatzeko zain



II – 4 – b. LAPari buruzko ikerketa. Bide Publikoetako sakanguneetako arazoak.

Ekitaldi honetan, zailtasun handiak aurkitu ditu proiektu honek garatzeko orduan, Bizkaian lanean ari diren enpresetako (TCSA, Eusko Tren, Vascongados, Encartaciones, etab.) autobus-gidariak erantzun beharreko eta, hala bazegokion, lanaldian zehar sakanguneak ibilgailuarekin zeharkatzean gidariarengan ematen diren ondorioak (ondorio ergonomiko eta ondorio psikosozialak) definitzea helburu zuen inkesta egin ondoren, 1200 igorri eta horietatik 122 baino ez dituztelako erantzun.

Arrisku psikosozial eta ergonomiko mailan teknikan oinarritutako ondorioak ateratzea galarazi duen aipatutako erantzun txikiaren ondorioz, ezin izan da Proiektu hau burutu, eta ulertu da oraingoz ez dagokiola jarraitzea, etorkizunean berrekiteko aukera izango delakoan.

II – 4 – c. LAPari buruzko ikerketa. Irina erabiltzeak dakartzan Arriskuen Ebaluazioa.

- Dokumentu amaitua, noiz argitaratuko zain.

II – 4 – d. LAPari buruzko ikerketa. Kontu-ikuskariarentzako Eskuliburua - Berrikuspena.

- Dokumentu argitaratu eta hedatua.

II – 4 – e. LAPari buruzko ikerketa. Nanopartikulak manipulatzea.

“ZAIINTZA TEKNOLOGIKOA: NANOTEKNOLOGIAK ETA OSASUNA”

2006. urtean ekin zitzaion proiektu honi, Nanoteknologiaei lotutako osasun-ondorioak eta gomendatutako babes-neurri nagusiak zehatz-mehatz ezagutzeko Zaintza Zerbitzua sortu eta gai honen inguruko egoerari buruzko dokumentua eginez.

2007. urtean zehar, aurreko urtean sortutako datu-basea hobetu, mantendu eta eguneratzeari ekin zion proiektuak. Era berean, nanomaterialen segurtasunaren inguruko gaietako eragile nagusiei buruzko txostena egin, artearen egoerari buruzko txosten eguneratu eta uneko informazio berri-zailearen gainera lau buletin elektronikoko prestatu ziren.

2008ko ekitaldian, eremua zabaldu eta bi gai berri barne hartu dira:

- Nanomaterialen laginak hartzeko metodoei buruzko ikerketan izandako aurrerapenak.
- Nanomaterialen analisi fisiko/kimiko/toxikologikoko metodoen inguruko ikerketan izandako aurrerapenak.



Halaber, sortutako datu-basea elikatzen eta mantentzen jarraitu da, aurreko ekitaldietan aukeraturako 106 informazio-iturri eta barne hartu diren beste berri batzuen jarraipen jarraitua eginez.

Lan honen guztiaren ondorioz, “Nanoteknologiak giza osasunean duten eraginari buruzko artearen egoera” izeneko dokumentua eta bi buletin elektroniko prestatu dituzte.

Artearen egoerari buruzko dokumentuak azken urtean zehar zaintza-zerbitzua osatzen duten gai-kako arloen inguruan sortutako informaziorik garrantzitsuena laburbiltzen du.

“NANOMATERIALEN KUDEAKETA ARDURATSUA INDUSTRIAN”

Proiektu horren helburu nagusia, lantokian nanoteknologiak osasunean duten eraginari buruzko alderdiak kudeatzeko industria eta enpresa txikiei euskarri emango dion dokumentua egitea da.

Horretarako, proposamenean identifikatutako hiru egitekoak burutu dira 2008. urtean zehar:

1. Egitekoa: Bibliografia bilatzea.
2. Egitekoa: Informazioa aztertzea.
3. Egitekoa: “Nanomaterialen Kudeaketa Arduratsua Industrian” izeneko dokumentua egitea.

Prestatutako dokumentuak honako hauei buruzko informazioa biltzen du: nanoteknologiak osasunean duten eragina, nanomaterialak dituzten produktuen inguruko legeria, jokabide-kodeak, Estatuan gai honetan diharduten agintari eta ikerketa-zentroak eta lantokian nanomaterialak manipultzeko gomendioak.

II – 4 – f. LAPari buruzko ikerketa. “Eraikuntzarako Segurtasun Praktikoa” Argitalpena eguneratzea.

2007. urtean amaitu bazen ere, lan-bolumen handiak pentsatzen zena baino gehiago luzatu du maketazioa, eta ondorioz, ezin izan da 2008. urtean argitaratu. Nolanahi ere, gutxi barru argitaratzea espero da, 2009. urtean bada ere.

II – 4 – g. LAPari buruzko ikerketa. Alturako Arrantza-ontzietan LAP kudeatzeko eredua.

- Arrantza Sektorerako LAParen Plan Integralaren (Itsaspreben) inguruan burututako jarduerak nabarmendu behar dira.



G – LAN OSASUNA

I – 1. LOko Informazio Sistema: “Prebentzio-zerbitzuen Gutxieneko Datu Multzoa”.

- “Prebentzio-zerbitzuen Gutxieneko Datu Multzoaren” Informazio Sistemaren abiaraztea atzeratu da, Gutxieneko Datu Multzoak lanerako erabiltzen dituen informatika-aplikazioen osotasun-arazoak konpontzeko zain daudelako oraindik ere.
- Urtean zehar, honako jarduera hauei ekin zaie:
 - Administrazio-iturrietan dauden datuen lorpena kudeatzea, sisteman automatikoki kargatzeko.
 - Aplikazioaren taula gehigarriak eguneratzea.
 - Datu-eredua eta interfazeak eguneratzea, gaixotasun profesionalaren susmoaren komunikaziora egokitzeko.
 - Esku hartzen duten sistemen baterako informazioan dauden osotasun arazoak ebazteko proposamena.

I – 2. LOko Informazio Sistema: “PZetako OOUen Memoriei buruzko Urteko Ebaluazioa”.

- 2007. urteari dagokiona amaitzeaz dago, ondoren, argitaratu eta hedatzerik egon dadin.

II – 1. Intervención en Casos de SL. Amianto.

	Amianto ezabatze Planei buruzko Txosten Teknikoak	Amianto ezabatze Planei buruzko Osasun Txostenak	Errekerimenduak artatzea	Okupatu ondoko kontrola
ALZ	58	-	-	-
BLZ	141	-	-	-
GLZ	149	-	-	-
KZ	-	127	35	737
EAE	348	127	35	737

II – 2. LOko Kasuetan esku-hartzea. Mobbinga.

	Eskabide kop.	Txosten kop.
ALZ	4	4
BLZ	13	6 (*)
GLZ	0	0
EAE	17	10 (*)

(*) Gainerako 7ak, pertsona auzi-jartzaileari nola jardun behar zuen aholkatuz ebatzi ziren.



II – 3. LOko Kasuetan esku-hartzea. Drogamenpekotasunak. Memorien ebaluazioa.

- Kontsumoei buruzko 2007ko Memoria eginda.

II – 4. LOko Kasuetan esku-hartzea. Drogamenpekotasunak. Aholkularitza Zerbitzua.

- 111 kontsulta artatu dira.

II – 5. LOko Kasuetan esku-hartzea. Gaixotasun Profesionalen Banakako Zaintza.

Bestalde, Legionelosiko 4 Kasuren ikerketa gehitu behar da.

	Aukeratutako GP kop.	Aztertutako edo aztertzen ari diren GP kop.
ALZ	6	4
BLZ	0	0
GLZ	7	7
EAE	13	11

II – 6. LOko Kasuetan esku-hartzea. Laneko Asmaren Epidemiologia Zaintzarako Zentinelak Gertakarien Jakinarazpenerako Sistema.

- Osalaneko Lan Osasuneko Unitateak baditu, dagoeneko, Proiektua abian jartzeko baliabide eta elementu teknikoak.
- Era berean, Osakidetza Zerbitzu Espezializatuak beharrezko egitura-elementuez (Probokazio Kabina) eta ekipamenduez hornitu dira.
- Jakinarazpenaren Formularioa praktikan ebaluatu da, baina oraindik aldaketaren bat sartu behar dela ondorioztatu da.
- Bestalde, proiektuaren garapen formal egokiaren oinarri izango den dagokion lankidetzak-agiria sinatzeko proposatu dio.

II – 7. LOko Kasuetan Esku hartzea. Profesionaltzat sailka litezkeen Gaixotasunak Jakinarazteko Sistema.

1. Sistemara egindako Jakinarazpen kopurua Geografia Eremu eta Jakinarazpenaren Jatorriaren arabera - 2008

	ALZ	BLZ	GLZ	EAE
PZ	7	110	100	217
Osakidetza	14	11	16	41
Guztira	21	121	116	258



2. GP Susmagarrien Komunikazioen eta Cepross Sistemaren bidezko GPen Jakinarazpenen arteko Alderaketa - 2008

	GP Susmagarrien Komunikazioak		Cepross Sistemaren bidezko GPen Jakinarazpenak	
	Kop.	%	Kop.	%
Ag. Kimikoak	4,1	1,2	110	4,1
Ag. Fisikoak	84,9	80,2	2264	84,9
Ag. Biologikoak	0,2	0,0	4	0,2
Subst. Arnastea	4,7	11,6	126	4,7
Larruazalaren Erasotzaileak	5,7	3,9	151	5,7
Kantzerigenoak	0,4	2,3	11	0,4
2. Eranskina	0,0	0,4	0	0,0
Daturik ez	0,0	0,4	0	0,0
Guztira	100,0	100,0	2666 (*)	100,0

(*) Hasiera batez Cepross Sistemara gaixotasun profesionalen 2.768 parte jakinarazi baziren ere, azkenean 2.666 baino ez dira aintzat hartu, ondoren, 102 lan-istripu edo gaixotasun arruntzat jo zirelako.

III – 1. LOko ikerketa. 2 Ikerketa Proiektu definitzeko Lantaldea.

- Arrisku Psikosozialei buruzko Ikerketa Proiektu bat definitu da.

- B Arrisku psikosozialen Euskadiko egoera ezagutzea ahalbidetuko duen tresna bat prestatzean datza. Honela, garatu eta baliozkotu ondoren, dauden faktore eta arrisku psikosozialen diagnostikoa egingo da.
- Proiektu hau, Lehiaketa Publiko bidez deitzeko Baldintza Teknikoen Pleguaren prestaketa-fasean dago.

- Amiantoaren inguruko Lan – Eraginpean egotea Matrize bat egitera zuzendutako beste Proiektu bat garatzekotan daude. Horren bitartez, substantzia horri lotutako patologien banakako kasuak hobetu kontrolatu eta jarraitu ahal izango da, bai eta horren eraginpean dauden edo egon diren kolektiboen zaintza epidemiologikoa burutu ere.

- Izandako bilerak: 2.



III – 2 - a. LOko ikerketa. Substantzia Kimikoen inguruko Osasun Zaintzako Protokoloa.

- Protokoloaren zati orokorra gauzatu dela, hurrengo urratsa proposatutako eta dagoneko amaituta dagoen Metodologiaren arabera atal bakoitza garatzea izango da, lanketa hori ebidentzia zientifikoarekin bat etor dadin. Era berean, eraginpean dauden langileen artean eta Muga Balio Biologikoak aplikatzerakoan aintzat hartu beharreko Irizpideak ezarri dira. Produktuei buruzko fitxekin hastekotan, aipatutako metodologiaren arabera garatuko lirateke fitxa horiek.

III – 2 - b. LOko ikerketa. Berariazko Osasun Zaintzako Protokoloa - Irakasleak.

- Amaitzeaz; bibliografia aztertzen ari da, Protokoloan azken berritasun interesgarriak barne hartu ahal izateko.

IV - 1. OZ eta GParen alorreko Mediku kopurua Areagotzea. Osakidetzako Lehen Mailako Arretako Osasun Langileentzako Lan Osasunari buruzko Urrutiko Eguneratze Ikastaroa.

- Aurreko ekitaldian legeaz, Osakidetzako Prestakuntza Arloarekin izandako kontaktuak kontaktu, ez da Ikastaroaren beste edizio bat garatzea ahalbidetu duen behin betiko erantzunik jaso.

IV – 2. OZ eta GParen alorreko Mediku kopurua Areagotzea. Medikuntzako Profesionalak. Lantaldea.

- Lantalde honi dagokionez, Osalanek uste du beharrezko du aldi baterako neurriak (PZetako OOUetan espezialistak ez diren teknikariak barne hartzea, langile espezialisten ikuskaritzapean eta haiek gaiaren inguruko nolabaiteko prestakuntza jaso ondoren) hartu behar direla, horien bitartez, dauden langile espezialisten taldea osatu eta, ondorioz, Osasun Zaintzako egungo estaldura areagotzeko.
- Hori dela-eta, Osasun Sailarekin gai honen inguruko bateratze-lana burutzeko ahaleginak egiten ari dira, erakunde biek Lantaldeko gainerako kideei proposamen bakarra aurkeztu ahal izateko.
- Izandako bilerak: 1.



H - BESTE JARDUERA BATZUK

1. Errekerimendu, Salaketak eta Bestelako Eskabideak artatzea.

	Jasotakoen kop.		Izapidetutakoen kop.	
	LI	LOU	LI	LOU
ALZ	12	14	11	14
BLZ	150	18	125	10
GLZ	222	13	200	4
EAE	384	45	336	28

(LOU unitatean barne hartutakoak ez dira jaso Mobbing, GP eta Amiantoari dagozkionak).

2. OKNaren Ordezko Batzordeak.

- Eraikuntza.

Ez zen bilerarik egin.

- Prestakuntza.

Bilera bat egin zen eta, horretan, jardunaldi teknikoetako proposamenak, prebentzioko ordezkarien prestakuntza eta Eraikuntzako Ikasgela Ibiltariaren egoera jorratu ziren.

- Amiantoa.

Amiantoz gabetzeko Planei buruzko Autonomia Erkidegoen artean hitzartutako Adostasun Agiria (Osalanek LSOBNaren dagokion Lantaldean izandako esku-hartzearen arabera) aurkezteko bilera bat egin zen.

- Drogamenpekotasunak.

Lan Eremuko Kontsumoei buruzko 2006ko Memoria aurkezteko bilera 1 egin zen.

- Gaixotasun Profesionalak.

Profesionaltzat sailka litezkeen gaixotasunen Komunikazio Sistema aurkezteko bilera 1 egin zen.

- Osasun Zaintza.

Ez zen bilerarik egin.

3. Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Kontseiluko Osasun Publikoaren Batzordeko Laneko Osasunaren Lantaldean parte hartzea.

- Urtean zehar ez da jarduera formalen deialdirik izan.



4. AENOREko Normalizaziorako Batzorde Teknikoak (Lantaldeetan esku hartzea).

a. Forjatu azpiko Segurtasun Sariak.

Ez da deialdirik deitu.

b. Makinetan Arriskuak Ebaluatzea.

EN ISO 12000-1 araua berritzeko proiekturako bilera 1 egin da, eta beste 2, EN ISO 14121-1 araua berritzeko.

c. Eragile Kimikoek eragindako Arriskuak ebaluatzea.

Ez da deialdirik deitu.

5. Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionala (Lantaldeetan esku hartzea).

a. Laneko Eragile Kimikoen Eraginaren Ebaluazioa.

Ez da deialdirik deitu.

b. Nekazaritza Sektorea:

2 bilera egin dira, eta horietan Lantaldeak aurkeztutako bi dokumentu aurkeztu ziren, hots: “Produktu Fitosanitarioen Eraginpean egotearen Arriskua Ebaluatzeko Irizpideak” eta “Nekazaritza Sektoreko Gaixotasun Profesionalak”.

c. Eraikuntza Sektorea.

Ez da bilerarik deitu.

d. Amiantoa.

Bilera 1 egin zen, baina Osalan ez zen bertaratu bere ordezkaria bajaran zegoelako.

6. LSHIN (Lantalde batean esku hartzea).

a. Estatuko Heriotza Tasaren Analisi Kualitatiboa egitea Laneko Istripuen arabera.

Ez da bilerarik deitu.

7. Higiene Laborategiek Zerbitzuak Kanpoan ematea.

Sinatutako Lankidetza Hitzarmen kopurua	0
Analisiak igorri dituzten Enpresa kopurua	20
Landutako Txosten kopurua	237



8. LSOeko Nazioarteko III. Biltzarra

Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko III. Biltzarra Bilboko Euskalduna Jauregian egin zen, 2008ko ekainaren 4, 5 eta 6an.

10 erakusketarik eta 593 parte-hartzailek esku hartu zuten. Internet bidez zuzenean eskaini zen eta, berritasunik ere izan zen, entzuteko ezgaitasuna duten pertsonentzako zeinu-mintzaira bidez eskaini baitziren esku-hartze guztiak.

Ekitaldi osoa jasotzen duen DVD bat argitaratu da.

Sailari eta Osalani dagokienez, honako esku-hartze hauek nabarmendu behar dira:

- EAEko Laneko Osasun eta Lan Baldintzei buruzko II. Inkestaren aurkezpena.
- 2007-2010erako EAEko Laneko Segurtasun eta Osasuneko Plan Estrategikoaren aurkezpena.
- Arlo Teknikoak, hiru Ponentzia aurkeztu zituen eta honako hauek izan ziren horiek gai nagusiak: batetik, enpresetan LAParen ezarpenaren ebaluazioa eta, bestetik, arrantza- zein erai-kuntza-sektoreetan prestakuntza bideratzeko tresna birtualak.
- Laneko Osasun Unitateak bi Ponentzia aurkeztu zituen, eta honako hauek izan zituzten hizpide: EAEko LOZaren kalitatea eta gaixotasun profesional susmagarrien EAEko komunikazio-sistema eta, arrisku psikosozialen inguruko Tailer baten moderatzaile-eginkizuna.

9. Ekoizpen Ekipamenduak Modernizatzeko Programa.

SPRIren, Osalanen eta AFMren arteko Lankidetza Hitzarmenari esker, 2007ko azaroaren 12ko EHAAren, industria-makinetan inbertitzen duten industria-enpresentzako dirulaguntzak ezartzen dituen Iragarkia argitaratu zen. Honen helburuetako bat, makinak berritzeak berekin dakarren lan-baldintzen hobekuntza lortzea da.

Guztira, 184 proiektu diruz lagundu dira, eta 2.250.000 €ko (%50 OSALAN eta %50 SPRI) aurrekontua agortu da.



10. Aldizkaria eta Argitalpenak.

Aldizkari-kopurua: 3 (29-30-31)

Argitalpenen zerrenda eta bakoitzaren ale-kopurua:

ARGITALPENA	EJMPL
<i>Eraikuntza lanak egin bitarteko segurtasun eta osasun koordinatzailearen gidaliburu praktikoa</i> Guía práctica del Coordinador de Seguridad y Salud durante la ejecución de obras de construcción	3.000
Curso básico en Prevención de Riesgos Laborales para Delegados y Delegadas de Prevención - Reedición	2.000
Legislación. Disposiciones Específicas - Actualización	3.000
<i>Amiantoa</i> Amianto	2.000
<i>Euskadiko Enpresen berezko Prebentzio-Zerbitzuetako Oinarrizko Osasun-Unitateen memoria: Ebaluazio txostena 2006</i> Memoria de las Unidades Básicas Sanitarias de los Servicios de Prevención Propios de Euskadi: Informe evaluación 2006	500
<i>Laneko Arriskuen Prebentzioa Hegazti Gripearen aurrean. Gidaliburua eta Gida Praktikoa</i> Prevención de Riesgos Laborales frente a la Gripe Aviar. Manual informativo y Guía práctica	1.500
<i>Lan-arriskuen prebentzioaren arauzko auditoretzarako eskuliburua</i>	100
Manual para la auditoría reglamentaria de prevención de riesgos laborales	1.000
II Encuesta de Salud Laboral y Condiciones de Trabajo. 2007.CAE	500
<i>Laneko osasun eta laneko baldintzei buruzko II. inkesta. 2007. urtea. EAE</i>	200
<i>Argitalpen katalogoa - Maiatza 2008</i> Catálogo de publicaciones - Mayo 2008	2.000
<i>Osalan Jarduera Memoria 2007. Urtea</i> Memoria de Actividades de OSALAN. 2007	500

11. Jardunaldi Teknikoak.

	Eguna	Gaia	Bertaratutakoak
ALZ	Azaroak 26	Lipoatrofia Erdizirkularra	98
BLZ	Martxoak 13	Exekuzio Faseko Obra Koordinatzailearen Gidaliburu	449
	Abenduak 4	LAP arloko EAEko Estrategiak	127
GLZ	Urtarrilak 30	Zuraren Industriako Segurtasun eta Osasuna	150
	Urriak 20	LAPeko Teknikari eta Gerenteen Erantzukizun Penalaren Irismena	200



5. BESTE INSTITUZIO ETA ERAKUNDEEKIN IZANDAKO HARREMANAK

5.1. ERAKUNDEAK.

- Bilboko Medikuntza Zientzien Akademia.
- AENOR.
- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europar Agentzia.
- ANEPA.
- Lan Istripuetarako Mutuen Elkarte (AMAT).
- ASPA.
- ASPREM
- AZTI.
- Bizkaiko Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofiziala.
- Gipuzkoako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofiziala.
- Bizkaiko Industria Ingeniarien Elkargoa.
- Euskadiko Kooperatiben Federazioa.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.
- Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saila.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.
- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Lan Harremanetako Eskola – EHU
- Eudel.
- GOKAI fundazioa.
- San Prudentzio lan-fundazioa.
- LEIA fundazioa.
- MAPFRE fundazioa.
- Hobetuz.
- Inasmet.
- Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailatza.
- LSHIN.
- Nafarroako Lan Osasunaren Institutua.
- INVASSAT – Valentziako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutua.
- Fiskaltza.
- Mutualia.
- Bilboko Udalaren Prebentzio Zerbitzua.
- Herrizaingo Sailaren Prebentzio Zerbitzua.
- EHUKo Prebentzio Zerbitzua.
- Prebentzio Zerbitzuetako Osasun Zainketarako Unitateak (Bertakoak zein Kanpokoak).
- EHUKo Errektoreordetza – Ikasketen antolamendua.



5.2. LANKIDETZA HITZARMENAK.

Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua, S.A.-ren (SPRI), OSALANen eta Makina eta Erreminta Fabrikatzaileen Elkartearen arteko Lankidetza Hitzarmena, dagoen makinak txatarra bihurtuz eta laneko segurtasun- eta osasun-arauak betetzen dituen makina berriez jabetuz, enpresa txikian ekoizpen-ekipamenduen modernizazioa sustatzeko programa bat abiarazte aldera.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren eta Garraio eta Herri Lanetako Sailaren arteko Jarduera Protokoloa, Euskadiko abiadura handiko trenbide-sareko eraikuntza-lanen jarraipena egiteko.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren eta Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lanetako Sailaren arteko Lankidetza Hitzarmena, Metropoli Hegoaldeko Saihesbidea eraikitzen den bitartean.



6. OSALANEN KONTSEILU NAGUSIAREN BILERAK

LXVI.- DEIALDIA: 2008ko otsailak 28 – (Ezohiko bilera).

- 1- 07/12/20ko ohiko bilerako akta irakurri eta, hala erabakiz gero, onestea.
- 2- Osalanen antolaketa-eredu berriaren proposamena aurkeztea.
- 3- Galde-eskeak.

LXVII.- DEIALDIA: 2008ko martxoak 14 – (Ohiko bilera).

- 1- 08/02/28ko ezohiko bilerako akta irakurri eta, hala erabakiz gero, onestea
- 2- 2007ko ezbeharrak buruzko txostena
- 3- Hala badagokio, 2007ko jardura memoria onestea.
- 4- Hala badagokio, 2008rako Kudeaketa Plana onestea.
- 5- Gaixotasun Profesionalen erregistroaren inguruko egungo egoera. Arazoak eta konponbideak.
- 6- Galde-eskeak.

LXVIII.- DEIALDIA: 2008ko ekainak 30 – (Ohiko bilera).

- 1- 08/03/14ko ohiko bilerako akta irakurri eta, hala erabakiz gero, onestea
- 2- 2007/2010 epealdirako Laneko Segurtasun eta Osasuneko Plan Estrategikoaren gauzatze-mailari buruzko txostena.
- 3- Osalanen egitura- eta funtzionamendu-arauteki berria proposatu eta, hala erabakiz gero, onartzea.
- 4- Lan Ministerioak 17, 18 eta 19/2008 Dekretuen inguruan (Berezko ikuskapena) ezarritako eskakizunei buruzko informazioa.
- 5- Galde-eskeak.

LXIX.- DEIALDIA: 2008ko irailak 29 – (Ohiko bilera).

- 1- 08/06/30eko ohiko bilerako akta irakurri eta, hala erabakiz gero, onestea
- 2- 2009ko aurrekontuen aurreproiektua.
- 3- Galde-eskeak.

LXX.- DEIALDIA: 2008ko abenduak 3 – (Ohiko bilera).

- 1- 08/09/29ko ohiko bilerako akta irakurri eta, hala erabakiz gero, onestea
- 2- 2008ko urtariletik irailera arteko ezbeharrak buruzko txostena.
- 3- EAEko 2007-2010eko Laneko Segurtasun eta Osasuneko Plan Estrategikoa: 2008ko irailaren 30eko aurrerapen-maila.
- 4- Galde-eskeak.



7. BESTE JARDUKETA BATZUK

- Zarataren inguruko Osasun Zaintzako Protokoloa berraztertzen hasi da.
- Lipoatrofia Erdizirkularraren inguruan jakinarazitako kasuak:
 - Araba: 35.
 - Bizkaia: 29.
 - Gipuzkoa: 39.
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailarekiko lankidetzak honako hauek egin eta gauzatzeko:
 - EAEko Nekazaritza eta Basogintza Sektoreko LAPerako 07-09ko Plan Integrala (Nekapreben).
 - EAEko Arrantza Sektoreko LAPerako 07-11ko Plan Integrala (Itsaspreben).
- Osalanen eginkizunak berraztertzea: Egitura Arautegi Berria egin eta izapidetzen ari da.
- Eusko Jaurlaritzako Lehendakariitzako Prospekzio Soziologikoko Kabinetearekin elkarlanean, Euskal Soziobarometroan barne hartu beharreko galdetegi bat egin da, Euskal Gizartearen LAP arloko kontzientziatze-maila eta horren bilakaera neurtzeko. Honen ondorio "Hiritarrek laneko segurtasun eta osasunaz dituzten pertzepzioak" izeneko agiria izan zen.
- Ekainaren 19ko EHAA honako hau argitaratu zen: 6/2008 Ebazpena, ekainaren 2koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako erabakia argitaratzeko dena. Gaia: Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan gizarte irizpideak, ingurumenekoak eta beste politika publikoak barne hartzea.

I. Eranskina



I. ERANSKINA

**I. ERANSKINA/LAN ISTRIPUAK, SEKTOREKA, EAE-N ETA
ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAKO LURRALDEETAN.
2007-2008 URTEEN ARTEKO KONPARAZIO AZTERKETA**

**ISTRIPU GUZTIAK, SEKTOREKA, EAE-AN.
2007-2008 URTEEN ARTEKO KONPARAZIO AZTERKETA**

**ISTRIPU GUZTIAK, SEKTOREKA, ARABAKO LURRALDEAN.
2007-2008 URTEEN ARTEKO KONPARAZIO AZTERKETA**

**ISTRIPU GUZTIAK, SEKTOREKA, BIZKAIKO LURRALDEAN.
2007-2008 URTEEN ARTEKO KONPARAZIO AZTERKETA**

**ISTRIPU GUZTIAK, SEKTOREKA, GIPUZKOAKO LURRALDEAN.
2007-2008 URTEEN ARTEKO KONPARAZIO AZTERKETA**




Istripu guztiak, sektoreka. 2007-2008 urteen arteko konparazio azterketa

Eremua: EAE

Sektoreak	Ist. Arinak			Ist. Larriak			Ist. Hilgarriak		
	2007	2008	%	2007	2008	%	2007	2008	%
Nekazaritza	893	873	-2,24%	15	19	26,67%	8	4	-50,00%
Industria	17816	18216	2,25%	128	99	-22,66%	14	13	-7,14%
Eraikuntza	7873	7586	-3,65%	75	62	-17,33%	15	11	-26,67%
Zerbitzuak	16967	17440	2,79%	117	95	-18,80%	14	20	42,86%
GUZTIRA	43549	44115	1,30%	335	275	-17,91%	51	48	-5,88%
Baja eragin duten In itinere istripuak	4736	4609	-2,68%	42	33	-21,43%	5	14	180,00%
GUZTIRA. Baja Eragin duten Llak	48285	48724	0,91%	377	308	-18,30%	56	62	10,71%

EAE ■ ISTRIPUAK GUZTIRA 2007 - 2008






Istripu guztiak, sektoreka. 2007-2008 urteen arteko konparazio azterketa

Eremua: Arabako Lurralde Historikoa


Sektoreak	Ist. Arinak			Ist. Larriak			Ist. Hilgarriak		
	2007	2008	%	2007	2008	%	2007	2008	%
Nekazaritza	132	124	%-6,06	5	2	%-60,00	1	0	%-100,00
Industria	3882	3875	%-0,18	28	22	%-21,43	1	5	%400,00
Eraikuntza	1375	1269	%-7,71	20	8	%-60,00	0	2	- - -
Zerbitzuak	3211	3368	%4,89	21	14	%-33,33	2	3	%50,00
GUZTIRA	8600	8636	%0,42	74	46	%-37,84	4	10	%150,00
Baja eragin duten In itinere istripuak	1058	820	%-22,50	11	4	%-63,64	1	1	%0,00
GUZTIRA. Baja Eragin duten Llak	9658	9456	%-2,09	85	50	%-41,18	5	11	%120,00

ARABA ■ ISTRIPUAK GUZTIRA 2007 - 2008




Istripu guztiak, sektoreka. 2007-2008 urteen arteko konparazio azterketa
Eremua: Bizkaiko Lurralde Historikoa

Sektoreak	Ist. Arinak			Ist. Larriak			Ist. Hilgarriak		
	2007	2008	%	2007	2008	%	2007	2008	%
Nekazaritza	499	484	%-3,01	4	9	%125,00	4	4	%0,00
Industria	7838	8314	%6,07	43	41	%-4,65	6	5	%-16,67
Eraikuntza	4456	4198	%-5,79	31	41	%32,26	10	6	%-40,00
Zerbitzuak	8839	9167	%3,71	51	54	%5,88	8	11	%37,50
GUZTIRA	21632	22163	%2,45	129	145	%12,40	28	26	%-7,14
Baja eragin duten In itinere istripuak	2399	2500	%4,21	14	13	%-7,14	3	5	%66,67
GUZTIRA. Baja Eragin duten Llak	24031	24663	%2,63	143	158	%10,49	31	31	%0,00

BIZKAIA ■ ISTRIPUAK 2007 - 2008





Istripu guztiak, sektoreka. 2007-2008 urteen arteko konparazio azterketa

Eremua: Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Sektoreak	Ist. Arinak			Ist. Larriak			Ist. Hilgarriak		
	2007	2008	%	2007	2008	%	2007	2008	%
Nekazaritza	262	265	%1,15	6	9	%33,33	3	0	%-100,00
Industria	6096	6027	%-1,13	57	41	%-36,84	7	3	%-57,14
Eraikuntza	2042	2119	%3,77	24	41	%-45,83	5	3	%-40,00
Zerbitzuak	4917	4905	%-0,24	45	54	%-40,00	4	6	%50,00
GUZTIRA	13317	13316	%-0,01	132	145	%-36,36	19	12	%-36,84
Baja eragin duten In itinere istripuak	1279	1289	%0,78	17	13	%-5,88	1	8	%700,00
GUZTIRA. Baja Eragin duten Llak	14596	14605	%0,06	149	158	%-32,89	20	20	%0,00

GIPUZKOA ■ ISTRIPUAK GUZTIRA 2007 - 2008



II. Eranskina



EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOAN LAN ISTRIPIUEK ETA GAIXOTASUN PROFESIONALEK ERAGIN DUTEN LESIOEI BURUZKO TXOSTENA

EPEALDIA: 2008ko URTARRILETIK ABENDURA

ALDEZ AURREKO OHARRA

Sarrera gisa, eta Laneko Ezbehar-tasari buruzko Urteko Txostenaren xehetasunetan murgildu aurretik, honako hau aipatu behar da:

Laneko Ezbehar-tasari buruzko hileroko Estatistika Laburpenak (LEEL), zein honako Txosten hau (aurrerago, bi hauetako datuen artean dagoen desadostasuna azaltzeko dagozkion azalpenak ematen dira), Lan Agintaritzari jakinarazitako istripu-parteen erregistro-dataren arabera sortzen dira. Horrek, eta 2007ko udaberrian parte horiek jasotzen dituen aplikazioan izandako arazoak, 2008ko ezbehar-tasaren bilakaeran nolabaiteko distortsioa eman da, eta badirudi elkarren segidako arazoen ondorioz, Lanaldian gertatutako istripu guztien kopuruak aurreko ekitaldikoaren aldean gora egin duela.

Hala ere, erregistro-data alde batera utzi eta 2008an eta 2007an gertatu eta erregistratutako istripuak gertatu zireneko eguna (baja) aplikatuz gero, 41.274 istripu ateratzen zaizkigu 2008. urtean, eta 41.326 2008.ean. Horien artean, ia-ia berbera da istripu arinen kopurua (40.981 2008an eta 40.968 2007an) eta behera egin du 2008an istripu larri eta hilgarriei dagokienak eta, azken batez, guztizkoenak, 2007. urtearen aldean, hau da, 250 istripu larri 2008an eta 311 2007an, eta 43 istripu hilgarri 2008an eta 47 2007an, eta 41.274 istripu, guztira, 2008an eta 41.326 2007an. Honek erakusten du igoera hori ez dela benetan eman.



1. METODOLOGIA

1.1. Datu-iturria

Ondoren adierazten direnak dira txosten hau egiteko erabili diren iturriak:

- Lan Istripuetarako. IGATT aplikazioaren datu-basea, zeinaren bitartez lan-istripuen parteak telematikoki jakinarazten diren (Lan Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila).

Azalpena IGATT aplikazioaren datu-basea Laneko Ezbehar-tasari buruzko hileroko Estatistika Laburpenak (LEEL) sortzeko, zein honako Txosten hau egiteko erabiltzen da. Hala ere, ohartarazi behar da LEELeko balioek eta Txosten honetan bildutakoek ezin dutela erabat bat egin, IGATT aplikazioaren izaerarengatik berarengatik. Izan ere, IGATT datu-base bizia da, eta bertan erregistratutako parteetan aldaketak ematen dira, eta baia deuseztapenak ere. Horrela, Txosten hau egiteko erabilitako datu-fitxategia 2009/01/19koa da, eta beraz, 2008.urtean zehar erregistratutako istripuetan egun horretara arte izandako aldaketak jaso dira, eta pilatutako LEELek bideratzen dituen datuak, aitzitik, hileroko LEEL txosten guztien batuketa da. Azken horiek, une jakin batean egin ziren, inolako eguneratzerik kontuan izan gabe.

- Gaixotasun Profesionaletarako. CEPROSS, aplikazioaren datu-basea, zeinaren bitartez gaixotasun profesionalen parteak telematikoki jakinarazten diren (Gizarte Segurantzaren Antolamendu Zuzendaritza Nagusia, Lan eta Immigrazio Ministerioa). Fitxategiek, hileroko CEPROSS sistemara jakinarazitako gaixotasun profesionalen parteak barne hartzen dituzte. Erregistro bakoitzak ez ditu partearen aldagai guztiak biltzen, aldagai-kopuru txiki bat baizik.

Azalpena. Aurreko txostenetan IGATT aplikazioa erabili zen jakinarazitako gaixotasun profesionalen datu-iturri gisa. Datu-iturria aldatze honek informazio ezberdina bideratzen du, eta beraz, ezinezkoa da aurreko epealdietakoekin alderatzera. Honengatik aurkezten dira tauletan, soil-soilik, 2008. urteko datuak.



1.2. Aztertu beharreko Datuak: Denboraldia eta Hautaketa Irizpideak.

Business Objects kontsulta-sortzailearen bitartez, IGATT aplikazioan ezagutzera emandako **lan-istripuak** eskuratu dira. Horiek, 2008/01/01etik 2008/12/31ra bitartean jakinarazitakoak dira. 2009/01/19an egin eta atera da istripu eta gaixotasunen kontsulta.

Istripuen hautapen-iragazki gisa honako hauek erabili dira:

- parte sartu zen azterketa-epearen barruko erregistro-eguna.
- istripu-parte berria (gaixoberritzeen parteak ez ziren barne hartu).

Gaixotasun profesionaletan, gaixotasun profesionalaren partearen erregistro-eguna erabili da hautapen-iragazki gisa. Ondoren, 102 parte baztertu egin dira, jakinarazpena ixterakoan, lan-istripu edo gaixotasun arrunt gisa sailkatu baitziren.

1.3. Aztertu beharreko biztanleria.

Istripuak eta gaixotasunak jasan dituzten azterketako biztanleria, EAEko langileak dira, eta horietatik, azterketa-epealdian, Gizarte Segurantzako erregimen berezian, meatzaritzako erregimenean, nekazaritzako erregimen berezian eta itsas langileen erregimen berezian altan zeudenak. Ez dira aintzat hartu autonomoak eta etxeko langileen erregimenekoak.

2008/01/01ean, norberaren kontura lan egiten duten nekazaritzako erregimen bereziko langileak RETAri (langile autonomoen erregimen berezia) atxiki zaizkio. Honen ondorioz, intzidentziasak kalkulatzeko orain arte erabili den nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza-sektoreko langile-kopuruak behera egin du.

Gizarte Segurantzaren afiliatutako biztanleria erabili da, honako hauen arabera bereizita:

- Erregimena, lurralde historikoa eta jarduera ekonomikoa.
- Erregimena, lurralde historikoa, adina eta generoa.

Istripu-arriskuak kontratazio-motaren arabera kalkulatzeko, kontratuaren arabera soldatapeko biztanleria erabili zen, eta honakoa, EUSTATEk biztanleriaren jardueraren arabera inkestan, PRA-2007 delakoan, oinarrituta balioetsi zen.



1.4. Txostenean erabilitako Maiztasun eta Arrisku Neurriak.

Txosten honetan hiru neurri-mota erantsi dira:

1. Azterketaren epealdian gertatutako istripu edo gaixotasunen zenbaketa edo kopurua. Intereseko aldagai ezberdinen arabera tabulatu dira.
2. Intzidentzia-tasak edo –indizeak: a) Hileko intzidentzia-indizea; b) Epealdiko intzidentzia-indizea (epealdiko azken hilabeteetan metatua). Leku eta epealdi zehatz batean gertakaria zein maiztasunarekin eta zein intentsitatearekin eman den neurtzen dute. Leku eta epealdi horretan mila langileko izan diren istripu edo gaixotasun kopuru gisa adierazten da.
3. Odds Ratio edo Aldeko Arrazoi bidez neurtutako arrisku-neurriak. Lan-istripuetarako baino ez dira kalkulatu. Istripua izan duten langileen artean, eta izan ez dutenen aldean, ematen den ezaugarri edo baldintza bat maiztasun handiagoz ematen den bider-kopuruaren arabera interpreta daiteke.

1.5. Datuak Denboraren arabera aztertzea.

Aztertutako lan-istripuen seriko aldagai interesagarri nagusia denbora-tartea da. 2008ko urtariletik abendura arteko Llen seriea aztertu da. Epealdi honetako emaitzak, 2007koekin alderatuta azaltzen dira.

2008. urteko lan-istripuen intzidentzia-indizeak bi erreferentzia-indizeren arabera alderatu dira:

- Hileko eta 2007. urtean metatutakoaren intzidentzia-indizeak.
- Hileko eta metatuko zirela espero zen intzidentzia-indizeak. Espero ziren indize hauek, aurreko lau urteetan (2004-2007 epealdia) izandako indizearen batezbestekoa izan dira).

Txosteneko hainbat taula eta iruditan, gainera, 2004tik 2008ra bitartean, aipatutako hilabeteetan zehar izandako Llen bilakaera ere aurkezten da.

3. Taulari buruzko azalpena. Honek ez ditu Lehen Sektoreko intzidentzia-indizeak enpresaren tamainaren eta larritasunaren arabera jasotzen, Nekazaritza-Abeltzaintza-Basogintza-Arrantza Sektorean barne hartutako ekoizpen-jarduerei dagozkion eta Gizarte Segurantzari atxikita dauden biztanleei buruzko datuak, enpresaren tamaina-tarteen arabera sailkatuta, ez izateagatik.



1.6. Datuen Tabulazioa.

Lanaldian eta “in itinere” gertatutako LI bereizi dira.

Lanaldiko Llek, ohiko lantokian, beste lantoki batean edo lanagatiko joan-etorrietan gertatutako Llak barne hartu dira. “In itinere”-ko Llak, lanera joan edo lanetik itzultzean gertatutakoak dira.

Tauletan txertatutako lanaldiko Llen emaitzak, lesioaren arabera bereizi dira, hau da, **LI Traumatikoak eta Ez traumatikoak**. LI ez traumatikoek, bihotzeko eta garuneko hodietako istripuen ondoriozko lesioak barne hartzen dituzte. LI traumatikoak, berriz, gainerako guztiak dira.



2. LANALDIAN GERTATUTAKO LAN ISTRIPUEN ONDORIOZKO LESIOAK.

2.1. Kopuru Absolutuak eta Intzidentzia Indizeak.

2008. urtean lanaldian gertatutako eta Lan Agintaritzari jakinarazitako lan-istripu guztiak: 44.396.
2007. urtean 43.994 istripu zenbatu dira.

Epealdi biak alderatuz, lanaldian gertatu eta baja eragin duten 402 istripu gehiago eman direla ikusten da.

1A, 1B eta 1C tauletan, epealdi berberetan, baja eragin duten Llen kopuruak adierazten dira, lurraldearen, sektorearen eta istripu-motaren arabera sailkatuta. LI traumatikoak %0,9 gehitu dira eta ez traumatikoak, berriz, %10 gutxitu. Guztizko istripu-tasaren gorakadarik handiena Bizkaian izan da eta, sektoreka, zerbitzu-sektorean.

Aurreko paragrafoaren azalpena. Eta zehazkiago, LI ez traumatikoen %10eko beherakada adieraziz; izan ere, datu hori ez dator bat LEELen istripu horien inguruan eta epealdi berean jasotzen den %14,3ko gorakadarekin. Bikoitza da desadostasun horren arrazoia:

- LEELak, gorago nolabait azaldu denez, aldaketak edo deuseztapenak kontuan hartzen ez dituzten "argazki" edo hileroko txostenen batuketa dira, eta urteko txosten honek, aitzitik, aldaketa horiek aintzat hartuz biltzen ditu datuak (datu eguneratuak).
- Deskargatutako datuen prozesatu- eta arazketa-fasean, eta horiek aztertu baino lehen, zehatz-mehatz sailkatzen dira Llak traumatikotan eta ez traumatikotan, eta kode okerrak zuzentzen dira. Kode okerraren berrikuspen honen aldatu egiten du LI ez traumatikoen azken kopurua

Istripuak LARRITASUN mailaren arabera aztertzean, honako datu hauek atera dira 2008ko urtariletik abendura arteko epealdirako: 44.075 istripu arin, 273 larri eta 48 hilgarri. 2007. urteko epealdi berean, berriz, honako kopuru hauek eman ziren: 43.610 istripu arin, 333 larri eta 51 hilgarri.



2. taulan azaltzen dira dagokigun 2 epealdietan emandako Intzidentzia-indizeei buruzko datuak. 2008. urtean, lanaldian gertatu diren eta baja eragin duten Llen intzidentzia-indizea eta aurreko urteko epealdi berean gertatutako istripu traumatiko guztiei dagokiena ia berbera da. Istripu ez traumatikoen intzidentzian %10eko beherakada eman da.

Intzidentzia-indizeen bilakaera 1. eta 2. irudietan ikusten da hobeto. 1. irudian, 2008an, hilez hile eta aurreko urtearen arabera gertatutako Llen intzidentzia-indizearen oszilazioak ikus daitezke. 1. irudiak 2008ko Llen intzidentzia-tasan hilabetez hilabete emandako oszilazioa aurreko urteekin alderatuta erakusten digu. Hileko indizeak erakusten du istripu larri traumatikoen intzidentziak behera egin duela aurreko urtearekin alderatuz eta espero ziren balioen aldean, baina ez da gauza bera gertatzen guztizko istripuekin eta istripu hilgarrieekin, hala traumatikoekin, nola ez traumatikoekin. Ez da ikusten goraka edo beherakako joera argirik. Istripu traumatiko hilgarrien intzidentzia apirilean, abuztuan eta abenduan izan da handiagoa, eta istripu ez traumatiko hilgarriena, ordea, urte hasieran eta amaieran izan da handiagoa.

2. irudian, 2008. urtean zehar metatutako intzidentzia-indizearen bilakaera, 2007. urtekoarekin eta 2004-2007 laurtekoan gertatutako Llen arabera espero zen balioarekin alderatuta azaltzen da. Lehenik, istripu traumatiko larrien intzidentziaren beherakada ikus daiteke eta, hein txikiago batean, ez traumatikoena. Bigarrenik, 2007ko eta 2008ko istripu guztien intzidentzia antzekoa dela ikusten da. Hirugarrenik, 2008ko martxotik abuztura eta irailetik abendura istripu traumatiko hilgarrien artean emandako gorakako joerak, 2007an emandako intzidentzia-indizeekin parekatzera eramandu. Istripu ez traumatiko hilgarrietan handiagoa izan da joera urteko lehen hilabeteetan, eta txikiagotu egin da maiatzetik aurrera.

Arrisku metatua arriskuaren gutxi gorabeherako balio bat bezala interpreta daiteke eta, EAEko langile batek lan-adinean, 16 urtetik 65era, eta lanaldian zehar lan-istripu bat pairatzeko duen arriskua adierazten du. Adibidez, 2008. urtearen amaieran 0,040koa izan da mila langileko, LI hilgarri traumatikoen intzidentzia-indize metatua. Honek esan nahi du, aurreikuspenen arabera, EAEko langile batek, 65 urte bete baino lehen, lan-istripu bat pairatzeko duen arriskua %0,0040koa dela. Hots, honek esan nahi du, EAEko lan-istripu hilgarrien maiztasuna 2008koa balitz, heriotza eragin dezaketen bestelako arrazoirik izan ezean, 65 urte bete baino lehen 100.000 langileko 4 hilko liratekeela. 2007ko istripu-tasaren datuekin, kopurua hau berbera litzateke.



2.2 2008ko urtariletik abendura gertatutako Istripu Larri eta Hilgarrien Deskribapena.

2008ko urtariletik abendura lanaldian gertatutako lan-istripuen tipologia antzeratu nahian, ondorengo aldagai deskribatzaileen arabera sailkatu dira:

Lurralde Historikoa:	Langilearen lanbidea
Generoa	Kontratazio-modua
Adina	Gertatzen den leku-mota
Enpresaren tamaina	Istripuaren momentuko jarduera fisikoa
Kontratu-mota	Eragile materiala
Istripua nola gertatu den	Istripua eragiten duen desbiderapena
Lesio-mota	Adina eta kontratu-mota
Antzinatasuna lanpostua	Adina eta generoa
Ekonomi jarduera	Herritartasuna

Emaitzak 3. taulatik 21era bitartean aurkezten dira, eta LI traumatikoak eta ez traumatikoak bereizi dira.

2.2.1. Jarduera Ekonomikoaren arabera.

- Enpresaren jarduera-sektorea.

Jarduerak sektoreka elkartuz, 2008. urtean, industria-sektoreko enpresetan eman dira istripu traumatiko larri gehien (lanaldian gertatutako honelako istripuen %36) eta istripu hilgarri gehien zerbizuetako enpresetan (1-B taula). Hala ere, istripu traumatiko larri eta hilgarrien intzidentzia-indizerik handiena nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza-sektorean eman da (ikusi 30. taula).

Jarduerak hain batuta aztertu gabe (hots, enpresaren jarduera-adarraren arabera), LI traumatiko larriak eraikuntzan (%24), metalezko produktuen fabrikazioa (%11), metalurgian (%9), bestelako enpresa-jardueretan (%7) eta administrazio publikoan (%5) pilatzen dira. LI traumatiko hilgarriak, bereziki, eraikuntza-enpresetan (%26), metalezko produktuen fabrikazioan, ibilgailu motordunen salmenta eta konponketan eta lurreko garraioan (%9,7% bakoitzeko) eta arrantzan eta metalurgian (%6,5) eman dira. Hala ere, lesio larri edo hilgarriak ondorioztatu dituzten istripuen intzidentzia-indizerik handiena basogintza eta baso-lanetako enpresetan eman da (ikusi 12. taula). Enpresa hauetan, 2008. urtean, eman den istripu larrien tasa 4 aldiz handiagoa da arriskurik handiena duen hurrengo taldearekin alderatuta, eta heriotza ekarri duten istripuena, berriz, 10 bider handiagoa.

LI ez traumatiko larri gehien metalurgia-enpresetan eman da eta intzidentzia-indizerik handiena, ordea, aireko garraio-jarduerari dagokio, istripu bakar bat eman bada ere. 17 Istripu ez traumatiko hilgarrietatik, 3 metalurgia-enpresetan gertatu ziren eta beste 3 eraikuntza-enpresetan, baina intzidentzia-indizerik handiena saneamendu publikoko jarduera-enpresetan.



3., 4. eta 5. irudietan eta 30. taulan ikus eta alderatu ahal da sektore bakoitzean pilatutako intzidentzia-indizearen bilakaera azken bi urteetan zehar (2007-2008) eta istripu-mota bakoitzeko. Honako hauek dira egin daitezkeen ohar nabarmenenak:

- LI traumatiko guztiak: intzidentziaren gorakada nabarmena lehen sektorean, gorakada txikia industria- eta zerbitzu-sektorean eta beherakada eraikuntzan.
- LI traumatiko larriak: intzidentziaren beherakada industria-, eraikuntza- eta zerbitzu-sektoreetan. Gorakada lehen sektorean.
- LI traumatiko hilgarriak: intzidentziaren gorakada zerbitzu-sektorean, bere horretan jarraitu du industrian eta behera egin du eraikuntzan eta lehen sektorean.
- LI ez traumatikoak: istripu larrien intzidentzia gora egin du industria-sektorean, eta behera zerbitzu-sektorean. Lehen sektorean eta industria-sektorean behera egin du istripu hilgarrien intzidentziak, eta pixka bat gora zerbitzuenean.

2008. urtea eta 2007.a alderatuta, lehen sektorean (nekazaritza, abeltzain eta arrantza) intzidentzia-indizeak gora egin duela azpimarratu behar da. Gorakada hau, zati batez, indizearen izendatzailearen gorakadak eragin du, hau da, erregimen hauetan Gizarte Segurantzari atxikitako pertsona guztiak. 2008/01/01ean Norbere Kontura Lan egiten duten Nekazaritzako Erregimen Berezia desagerraraztearen eta Autonomoen Erregimen Berezian txertatzearen ondorioz gertatu da, izendatzailearen %33aren beherakada ekarri, eta aldi berean, kalkulaturako intzidentzia-indizearen balioa artifizialki areagotuz.

10. irudian, istripu traumatikoen intzidentzia-indize metatuen datu berberak adierazten dira, baina urteka eta sektoreka sailkatuta.

- Jarduera-sektorea eta enpresaren tamaina.

3. taulan (Ikusi 6. orrialdean eta taularen beraren oinean, taula honen inguruko azalpena) eta 11. irudian, jarduera-sektorearen eta enpresen tamainaren -langile-kopurua- arabera istripu-tasa azaltzen da. Datuek adierazten dute 2008. urtean istripuen intzidentzia handiagoa izan dela 26 eta 100 langile bitarteko enpresetan eta sektore ezberdinetan, eta beherakako joera ematen da intzidentzia-indizean, enpresaren tamaina areagotu ahala. Datu honek esan nahi ahal du enpresaren tamainaren, prebentzioaren kudeaketaren eta istripu-tasaren artean erlazioa egon daitezkeela. Hala ere, adierazgarria intzidentzia txikiagoa dela enpresa txikienetan. Bestalde, deigarria da istripu traumatiko eta ez traumatiko larri eta hilgarrien indizirik handienak 250 langiletik gorako enpresetan ematea.



2.2.2. Lurraldea

4. eta 28. tauletan, lurraldeka azaltzen dira LI larri eta hilgarriei dagozkien kopuruak eta intzidentzia-indizeak. Arabako lurraldean ematen da LI traumatiko eta ez traumatikoen intzidentzia-indizerik handiena.

6., 7. eta 8. irudietan, lurralde bakoitzean, 2007. eta 2008. urteetan eta istripu-mota bakoitzean metatutako intzidentzia-indizearen bilakaera azaldu eta alderatzen da:

- LI traumatiko larriei dagokienez, antzekoa intzidentzia hiru lurraldeetan, Bizkaian, Araba eta Gipuzkoan baino zertxobait handiagoa izanda.
- Nabarmen egin du gora LI traumatiko hilgarrien intzidentzia Araban, baina Bizkaian eta Gipuzkoan behera egin du, eta bigarren horretan gehiago. Deigarria da Bizkaiko eta Gipuzkoako intzidentzian udaberritik aurrera ematen den aldaketa, hurrengo hilabeteetan nabarmena baita istripu-kopuruaren gorakada.
- Istripu ez traumatiko hilgarrien intzidentziak gora egin da Araban, eta behera, Bizkaia eta Gipuzkoan.

2.2.3. Generoa (5. eta 21. taulak).

Gehienbat, gizonezkoek izan zituzten LI hilgarriak, bai traumatikoak zein ez traumatikoak.

2.2.4. Adina (6. eta 21. taulak)

2008. urtean, istripu traumatiko larrien %56 eta hilgarrien %45, 25 eta 44 urte bitarteko pertsonak izan zituzten, nabarmen txikiagoa dela gazteagoen artean erregistratutako istripu kopurua. Hala ere, 45 eta 19 eta 16 eta 19 urte bitarteko adin-taldeetan ematen da istripu traumatiko larrien indizerik handiena, eta 20 eta 24 urte bitartekoen artean istripu traumatiko hilgarri gehien (21. taula). Istripu ez traumatiko larrien %83 eta hilgarrien %71, 45 urtetik gorako langileek izan dituzte. Ezaugarri hau patologia ez traumatikoen jatorriarekin bateratu ahal da, esaterako, bihotz-hodietako patologia iskemikoa, adin-talde hauetan areagotu egiten baita.



2.2.5. Beste faktore batzuk

- Kontratu-mota. (8. taula)

LI traumatiko larrien eta LI ez traumatikoen (larriak zein hilgarriak) artean, lanaldi osoko kontratu mugagabea nabarmentzen da. Hala ere, LI traumatiko hilgarrien artean, maizago ematen dira lanaldi osoko aldi baterako kontratua duten langileen artean.

- Azpikontratazioa (14. taula)

2008. urtean, istripu-tasa ohikoagoa izan da enpresa nagusietan, azpikontratutako enpresetan baino. 2008. urtean jakinarazitako LI traumatiko larri eta hilgarrien %72, enpresa nagusietan gertatu ziren.

- Langilearen lanbidea (13. taula)

LI traumatiko larri gehien “eraikuntzako eta antzeko egituretako langileen” (%9,4) eta “manufaktura-industrietako peoien” (%8), “hiri-garraio edo errepideko ibilgailuen gidarien” eta soldatzaile, egitura-muntatzaile, erreminga-egileen” (%13 bakoitza) artean gertatu ziren.

- Lanlekua eta Deribazioa (16. eta 19. taulak).

LI traumatiko larri gehien hartu zuten lanleku edo lan-espazioa “tailer edo lantegia” izan zen, eta ondoren, “eraikuntzako eraikinak”. Istripu hilgarrietan, ordea, “garraiobideak eta errepideak” izan ziren.

Istripu larrietan maitasun handienez gertatu zen ohiz kanpoko gertakaria “pertsona altueratik erortzea” (%17) izan zen, eta istripu hilgarrien artean, “garraiobidearen kontrol-galtze partzial edo erabatekoa” (%23).



2.3. Larri edo Hilgarria izateko Arriskua, Kontratu-mota, Sektore, Lurralde, Adin eta Langilearen Generoaren arabera

2008. urtean lan-istripu larri edo hilgarria izatearen eta bost faktoreen arteko lotura aztertu da. Honako hauek dira gorago aipatutako faktoreak: a) langilearen generoa; b) langilearen adina; c) kontratu-mota, d) lurraldea eta e) istripua gertatutakoan langileak lanleku zuen enpresaren jardura-sektorea.

Faktore guztiak era batera aztertzeko, erregresio-eredu bat erabili da, faktore bakoitzak izan dezakeen eragina neurtzeko helburuarekin, gainerako faktoreek istripu hilgarria gertatu edo ez gertatzeko izan dezaketen eragina kontuan hartu gabe.

Jarraian datorren taulan emaitzak agertzen dira:

Faktorea **EAEko langile-biztanlerian, 2008. urtean, eta lanaldian (“in itinere” izan ezik) Istripu Larria edo Hilgarria pairatzeko arriskua.**

Generoa 8 bider sarriago gertatu dira istripu larri eta hilgarri traumatikoak gizonezkoengan emakumezkoengan baino. Asoziazio hau, langileen adinaren, eta dagozkien sektore eta lurraldearen arabera egin da.

Adina Langileak hiru adin-mailatan sailkatuta (16 eta 24 urte bitartekoak, 25 eta 44 urte bitartekoak eta 45 urtetik gorakoak), istripu traumatiko larri eta hilgarriak zertxobait gehiago gertatu dira 45 urtetik gorako langileengan, 45 urtetik beherakoengan baino. Traumatikoak ez diren LI larri eta hilgarriak 6 aldiz sarriago bertatu dira 45 urtetik gorako langileengan, gazteagoengan baino. Datu hauek, genero, sektore eta lurraldearen arabera egon daitezkeen ezberdintasunetan oinarrituta zehaztu dira.

Langileen adina eta istripu hilgarriak erkatzean, adina gehiago zehaztuz gero (bost urtekako taldeka) eta generoaren eta lurraldearen arabera mugatuz, egiaztatu zen 45 eta 50 urte bitarteko langileek istripu larri edo hilgarri gehiago zituztela. Egiaztatu zen, halaber, adinak gora egin ahal istripu-arriskuak ere areagotzeko joera zuela.

2008. urtean gertatutako LI ez traumatiko larri eta hilgarriak izateko arriskua nabarmen handiagoa izan da 45 eta 54 urte bitarteko langileengan. Adin honetan 1,4 bider gehiago eman dira honelako istripuak adin gehiagoko langileengan baino, eta 4 bider gehiago 35 eta 45 urte bitartekoengan baino. Honako hau bihotz-hodietako patologien mekanismoekin bat dator.



Lurraldea	2007. urtean zehar, IT larri eta hilgarriak, traumatikoak zein ez traumatikoak, maiztasun berberarekin eman dira hiru lurraldeetan. Asoziazio hau langilearen adinaren, sektorearen eta generoaren arabera egin da.
Kontratu mota	3 bider gehiago gertatu dira istripu larri eta hilgarri traumatikoak behin-behineko kontratua zuten langileengan, lan-kontratu finkoa zutenengan baino, lurralde, adin eta generoaren arabera bereizketa egin ondoren. LI ez traumatikoetan, 1,3 bider sarriago eman dira aldi baterako kontratua zuten langileengan, kontratu mugagabea zutenengan baino.
Jarduera sektorea	Emakumeen eta gizonen eta adinen arabera banaketa lau jarduerasektoreetan eta hiru lurraldeetan kontrolatu ondoren, istripu traumatiko larri edo hilgarria izateko arriskua 6 bider handiagoa izan da lehen sektorean zerbitzuen sektorean baino, 3 bider handiagoa eraikuntza-sektorean eta 1,6 bider handiagoa industrian zerbitzuen sektorean baino. LI ez traumatiko larri edo hilgarria izateko arriskurik handiena, ordea, eraikuntza-sektoreko enpresetako langileek izan dute.



3. "IN ITINERE"-KO LAN ISTRIPUEN ONDORIOZKO LESIOAK

Baja eragin duten "in itinere" motako istripuei dagokienez, 2008. urtean horrelako 4.650 istripu gertatu dira; aurreko urtean, berriz, 4.785 (1A taula).

Lau jarduera-sektoreetan honelako istripuen metatutako intzidentzia-indizearen jokabidea aztertuta (3., 4. eta 5. irudiak), honako hau ondorioztatu zen:

- Industria- eta eraikuntza-sektoreetan 2008. urtean in itinere gertatutako istripu-kopuru osoaren intzidentzia zertxobait txikiagotu da aurreko urtearekin alderatuz, baina zerbitzuen sektorean gora egin du.
- Lehen sektorean gora egin du in itinere istripu larrien intzidentziak. Industria-sektorean, ordea, behera egin du eta eraikuntza-sektorean, azkenik, ez da honelako istripurik egon 2008. urtean zehar.
- Zerbitzuen sektorean, lehen sektorean eta eraikuntza, nabarmen areagotu da istripu hilgarrien intzidentzia.

4. GAIXOTASUN PROFESIONALAK

2008. urtean, gaixotasun profesionalen 2.768 parte jakinarazi dira, hasiera batez. Horietatik, 102 lan-istripu edo gaixotasun arrunt gisa sailkatu, eta azterketatik kanpo utzi ziren. Berez gaixotasun profesionaltzat jotzen ez ziren baztertu ondoren, 2.666 gaixotasun profesional onartu ziren.

Jakinarazitako 2.666 gaixotasunetatik, 807 gaixotasun berriak dira, 409 gaixoberritzeak eta 1.450 ez dira zehaztu edo ezinezkoa da jakitea kasu berriak edo gaixoberritzeak diren (EP-1 taula).

Azaldu behar da GPen jakinarazpen- eta erregistro-sistema berria indarrean sartzeak aldatu egiten duela gaixotasun profesionalen eta ez profesionalen, edo prozesu berrien edo gaixoberritzeen arteko sailkapena. Sistema berrian, baja eragin duen GP baten alta ematean egiten da sailkapena. Honek esan nahi du, bazarik eragin ez duten GP guztien artean ezin dela jakina benetan kasu berriak ala gaixoberritzeak diren. Era berean, ezin da jakin kasu berria ala gaixoberritza diren azterketa egin zenean alta hartu ez zuten GPak.



Sektoreka, industria-sektoreko enpresak dira, oraindik ere, GPen kasu gehiago jakinarazten dituztenak eta intzidentzia-indizerik handiena dutenak (EP-2 taula). Hiru lurraldeetan gauza bera gertatzen da.

Lurraldeka, Gipuzkoako lurraldeak jarraitzen du intzidentziarik handiena izaten -1 GP berri eta 2,7 GP guztira, 1.000 langileko – eta honako hau jarduera-sektore guztietan gertatzen da, Bizkaiko lehen sektorean salbu. (EP-3 eta 4 taulak).

GP-5, GP-6 eta GP-7 tauletan, adinaren eta generoaren arabera gaixotasunak azaltzen dira. Intzidentzia askoz handiagoa da gizonezkoengan, eta horien artean, 45 urtetik gorakoengan. Emakumezkoen artean, berriz, adin gehien duten emakumeengan ematen da intzidentziarik altuena.

2008ko urtariletik abendura arteko epealdian, ondorengoak izan ziren gaixotasun profesional gehien hartu zituzten ekoizpen-jarduerak: “metalezko produktuen fabrikazioa eta eraldaketa”, “eraikuntza” eta “bestelako enpresa-jarduerak” (EP-8 taula). Azken talde honetako gaixotasun erdia garbiketa-enpresei dagokie, eta %32, aldi baterako laneko enpresei.

Ondorengoak izan ziren GPen intzidentzia-indizerik altuenak izan zituzten ekoizpen-jarduerak: “larruaren prestaketa, onketa eta akabera; goarnizio gaiak eta zapatagintza (35,05 x 1000), “motordun ibilgailu, trailer eta erditrailerren fabrikazioa” (13,53 x 1000), “metalezko produktuen fabrikazioa” (11,86 x1000), “altzarigintza” eta “metalurgia” (11 x 1000, bakoitzeko) eta “basogintza eta baso-ustiapena” (10 x1000).

Gaixotasun profesionalen lauki berrien gaixotasun profesionalen taldeen arabera (EP-9 taula), tendoienguruko ehunetako eta muskulu eta tendoiengintza-guneetako tendoi-zorroen nekeak eragindako gaixotasunei dagokie portzentajerik altuena, GPen prozesu berrien %59, alegia, eta jakinarazitako EP guztien %50. Hauen ondoren, baina urrutetik, hipoakusiak (%15,6), presioak eragindako nerbioen paralisia (%13,4) eta larruazaleko gaixotasunak (%6). Kantzerigenoek sortutako 11 prozesu izan dira.

EP-10 eta EP-11 tauletan gaixotasun profesional berriak gaixotasun-taldearen, generoaren, adinaren, lurraldearen eta sektorearen arabera banatuta azaltzen dira. Tendoiengintza gaixotasunak izan ziren ohikoenak adin guztietan eta bi generoetan. Hala ere, hau ez da gertatzen gizonezkoen gazteen gaixoberritzetaz, horien artean gaixotasunak sortzen dituen eragilerik ohikoenak hidrokarburo aromatikoak baitira. Ikusi zen, halaber, ia hipoakusia profesional guztiak adin gehieneko gizonezkoen artean ematen zirela eta ahotsarekin esfortzu jarraitua egiteagatik sortutakoak, berria, 25 eta 44 urte bitarteko emakumezkoen artean.

Gorago, hiru lurraldeen artean gaixotasun profesionalen jakinarazpenari dagokionez dagoen ezberdintasuna erakutsi da. Gaixotasun-talde bakoitzaren intzidentzian, gaixotasun-taldearen edo sektorearen arabera alderik zegoen jakin ahal izateko, gaixotasun profesionalen intzidentzia-indizeak atera ziren, gaixotasun-talde, lurralde eta jarduera-sektorearen arabera (EP-12 taula). Gaixoberritzetaz kanpoan utzita kalkulatu zen indize hau. Ikusi zen jakinarazitako gaixotasun-kopurua altuagoa zela Gipuzkoan beste bi lurraldeetan baino, eta ia gaixotasun-talde guztietarako. Hainbat kasutan, ahotsarekin gehiegizko esfortzuak egitearen ondoriozko gaixotasunen, neumokoniaren, asmaren eta agente kimikoek eragindako gaixotasunen kasuan, adibidez, nabarmen handiagoa izan zen Gipuzkoan izandako eragina, Bizkaian edo Araban izandakoa baino.



1-A TAUOLA. 2007. ETA 2008. URTEETAN EAE-N BAJA ERAGIN DUTEN ETA JAKINARAZI DIREN LAN ISTIRIPUAK

		2008ko ABE 31. metatutako datuak.				2007ko ABE 31. metatutako datuak				Barioioak %tan			
LURRALDE HISTORIKOA:		ARABA				ARABA				ARABA			
SEKTOREA	ARINAK	LARRIAK	HILGARRIAK	GUZTIRA	ARINAK	LARRIAK	HILGARRIAK	GUZTIRA	ARINAK	LARRIAK	HILGARRIAK	GUZTIRA	GUZTIRA
NEKAZARITZA	121	2	0	123	124	6	1	131	-2,42%	-66,67%	-100,00%	-6,11%	
INDUSTRIA	3878	22	5	3905	3915	25	1	3941	-0,95%	-12,00%	400,00%	-0,91%	
ERAIKUNTZA	1269	8	2	1279	1390	21	0	1411	-8,71%	-61,90%	-	-9,36%	
ZERBITZUAK	3365	14	3	3382	3186	22	2	3210	5,62%	-36,36%	50,00%	5,36%	
GUZTIRA	8633	46	10	8689	8615	74	4	8693	0,21%	-37,84%	150,00%	-0,05%	
BAJA ERAGIN DUTEN INTERE-KO LIAK	819	4	1	824	1058	11	1	1070	-22,59%	-63,64%	0,00%	-22,99%	
GUZTIRA BAJA ERAGIN DUTEN LIAK	9452	50	11	9513	9673	85	5	9763	-2,28%	-41,18%	120,00%	-2,56%	

		GIPUZKOA				GIPUZKOA				GIPUZKOA			
SEKTOREA	ARINAK	LARRIAK	HILGARRIAK	GUZTIRA	ARINAK	LARRIAK	HILGARRIAK	GUZTIRA	ARINAK	LARRIAK	HILGARRIAK	GUZTIRA	GUZTIRA
NEKAZARITZA	253	8	0	261	231	5	2	238	9,52%	60,00%	-100,00%	9,66%	
INDUSTRIA	6018	37	3	6058	6118	58	9	6185	-1,63%	-36,21%	-66,67%	-2,05%	
ERAIKUNTZA	2118	13	3	2134	2054	24	5	2083	3,12%	-45,83%	-40,00%	2,45%	
ZERBITZUAK	4910	24	6	4940	4924	44	3	4971	-0,28%	-45,45%	100,00%	-0,62%	
GUZTIRA	13299	82	12	13393	13327	131	19	13477	-0,21%	-37,40%	-36,84%	-0,62%	
BAJA ERAGIN DUTEN INTERE-KO LIAK	1285	16	8	1309	1275	18	1	1294	0,78%	-11,11%	700,00%	1,16%	
GUZTIRA BAJA ERAGIN DUTEN LIAK	14584	98	20	14702	14602	149	20	14771	-0,12%	-34,23%	0,00%	-0,47%	

		BIZKAIA				BIZKAIA				BIZKAIA			
SEKTOREA	ARINAK	LARRIAK	HILGARRIAK	GUZTIRA	ARINAK	LARRIAK	HILGARRIAK	GUZTIRA	ARINAK	LARRIAK	HILGARRIAK	GUZTIRA	GUZTIRA
NEKAZARITZA	453	9	4	466	474	5	5	484	-4,43%	80,00%	-20,00%	-3,72%	
